

GAIA: ELEBITASUNETIK ELEANIZTASUNERA • ESPERIENTZIAK:
XIBA PROIEKTUA • GALDEIDAZUE: AMAIA EZEIZA • GERNIKAKO
BAKEAREN MUSEOA • ATZEKO ATETIK: SUSTRAI COLINA

hh
hik hasi

127

4 EURO • 2008KO APIRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



ELKARRIZKETA

Xavier Roegiers eta Alexia Peyser

“Integrazioaren pedagogian helburua ez da ezagutza; ezagutza, gaitasunak garatzeko baliabidea da”

Istorio bizi eta hunkigarriak



12
urtetik
aurrera



10
urtetik
aurrera

KENSUKEREN MUNDUA

Michael Morpurgo
marrazkiak: Michael Foreman
itzultzailea: Uxue Alberdi

ZALDUN BELTZA


J.M. Olaizola "Txiliku"
marrazkiak: Eider Eibar

SIRENA BILDUMA



ILARGIA LAPURTU DUTE

5
urtetik
aurrera



AITONA MAITEA

Letra larriz idatzita daude batez ere
haurrei irakurketan lehen pausoak ematen laguntzeko.



aurkibidea



8
gaia

ELEBITASUNETIK ELEANIZTASUNERA

Euskarazko irakaskuntzak dituen erronkak aztertu zituzten hainbat adituk Iruñean izandako jardunaldietan. Elebitasunetik eleaniztasunera pausoa emateko beharra ikusi zuten denek ere, eta hona ekarri ditugu batzuen eta besteen iritziak eta hausnarketak.



16
elkarrizketa

XAVIER ROEGIERS ETA ALEXIA PEYSER

Lovaina Berriko Unibertsitatean egoitza duen BIEF bulego kide dira Roegiers eta Peyser. Integrazioaren pedagogia, hau da, gaitasunetan oinarritutako pedagogia lan-tzen dute. Ikastolen Konfederazioak gonbidatuta izan ziren Euskal Herrian.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ELEBITASUNETIK ELEANIZTASUNERA

EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA ERRONKA BERRIEN AURREAN

16 elkarrizketa

XAVIER ROEGIERS ETA ALEXIA PEYSER

24 esperientziak

Ekintza ikastolako gazteen motorrak martxan

26 esperientziak

Xiba proiektua

28 esperientziak

Etiopiar laguntzeko proiektua

32 galdeidazue

Haurrak gehiegi babesten al ditugu? Haur berekoiak egiten ari al gara? Ia ahaleginik egin gabe, bat-batean nahi duten guztia lortzea, egokia al da?

Amaia Ezeiza

35 berriak

40 nora joango gara?

Gernikako Bakearen Museoa

Bakearen kultura zabaltzea helburu

42 Atzeko atetik

Sustrai Colina

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló eta Olatz Lasagabaster. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Graftek. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANITZA S.A.L. Azaleko irudia: Xavier Roegiers eta Alexia Peyser (Argazki press). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2008-III-18). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonoa
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala apirila

Hezkuntzak batu edo zatitu behar al du?



Pertsonak hezi behar ditugu, neskak nahiz mutilak izan, jendarte justuago bat helburu izango dutenak. Hori, besteekin, gure ezaugarri berak ez dituztenekin, aniztasunean, lortuko da soilik.

Ba omen dira, gure artean, eskola batzuk neskentzat soilik direnak eta beste batzuk, aldiz, soilik mutilentzat direnak. Gainera, nesken eskolan emakumezkoak dira irakasle guztiak eta mutilen eskolan, berriz, gizonezkoak.

EAEko telebista publikoaren albisteegi batean eskola horietako ordezkarien adierazpenak entzun ahal izan ditugu berriki, genero banaketa horrek dakartzan abantailak laudatzen.

Antza, ohartu dira neskak eta mutilak desberdinak direla, eta desberdintasun horrek, nolabait, batak bestearen garapen intelektuala oztopatzen duela. Beste modu batera esanda: mutilak neskari gabe eta neskak mutilik gabe ikasketetan urrunago iristen direla; karrera gehiago eta arrakastatsuagoak egiten dituztela, alegia.

Aipatu zutenaren arabera, Estatu Batuetan egindako zenbait ikerketek hori horrela dela erakusten dute.

Jakina da eskola antolatzerakoan, ikasleak nahi adina irizpide erabiliz multzoka litezkeela: gaitasuna, maila

soziala, etnia, sexua, familia mota, ideologia, aldartea... Konbinazio matematikoak besterik ez dira osatu behar!

Gure oroimen laburrean galdua bada ere, ez da hainbeste urte hemen ere eskolak horrela antolatuak genituela. Francoren garaian, eskola aurrerakoiek egin zuten lehen urratsa, neskak eta mutilak elkarrekin gelan ipintzea izan zen. Eztabaida hori, beraz, gainditua beharko genuke dagoeneko, bi modutara antolatua izan baitugu eskola, eta bi moduek eman dituzten emaitzak aztertzeko aukera izan baitugu, jada.

Baina heldu gara etengabe geure buruari egin beharko geniokeen eta gure lanaren iparorratza izan behar duen galderara: zein jendarte mota nahi dugu, eta, hori lortze bidean zein da hezkuntzaren funtzioa?

Hori argitzen ez dugun bitartean, etaildo horretan lanean hasten ez garen bitartean, behin eta berriro jarraituko dugu geltoki berdinetatik pasatzen, gure bidean, atzera aurrera horretan,

gehiegi aurreratu gabe.

Gure lanak, besteen artean, jendarte kohesionatzeko funtzioa edo norberaren garapen soila izan lezake helburu. Biak ala biak ezinbestekoak dira, zer lehenetsi litzateke gakoa. Pertsonak hezi behar ditugu, neskak nahiz mutilak izan, jendarte justuago bat helburu izango dutenak. Hori, besteekin, gure ezaugarri berak ez dituztenekin, aniztasunean, lortuko da soilik.

Ez dugu berdintasunaren izenean itsutu nahi, abiapuntuan denak desberdinak baikara. Denei aukerak parekidetasunean emateko erantzun desberdinak eman behar baitira. Ezin, beraz, berdintasunaren izenean denei tratamendu bera eman. Pertsona bakoitzaren ahalmenak garatzen nola lagunduko ditugun pentsatzen hasi beharko dugu.

Ondorioz, eskola porrotak, batez ere, mutilaren aurpegia badu, egindako bidean beste aukera batzuk saiatu beharko ditugu. Denak elkarrekin aberatsagoak egiten baikara!

kronika

Heletako eskola publikoko gurasoek ez dute begi onez hartu bertako zuzendariari Ahatsako eskola publikoan egun erdiko lanpostua eman izana. Maria Claire Larrea Heletako eskolako irakasle eta zuzendaria da, baina Paueko Akademiak bere funtzioak aldatu ditu eta Ahatsako eskola publikoan euskara eskolak emateko postua ere eman diote.

Gurasoek ez dute Paueko Akademiaren erabakia onartu eta Larreari Ahatsako postua hartzea galarazi diote, Akademia Ikuskaritzak hartu duen erabakiak euskararekiko axolagabetasuna erakusten duela uste dutelako. Gurasoek salatu dute eskolak euskaraz emateko gai ez den irakasleren bat bidali izan duela Paueko akademiak Heletara eta gutun bat bidali diote Philippe Carriere Paueko Akademia ikuskariari arazoa bidera dezan eskatzeko.



Ereduen aldaketarik ez da izango datorren ikasturterako Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan

Eusko Jaurlaritzak ez ditu hizkuntza ereduak aldatuko 2008-2009 ikasturterako, beraz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskola publikoek eta itunpeko ikastetxeek A, B eta D erduei eutsiko diete datorren irailean, Pedro Otxoa Hezkuntza sailburuordeak iragarri duenez. Gurasoek beraz, seme-alabak orain arteko eruedetan matrikulatuko dituzte. Dena den, Otxoak gogorarazi du ikastetxe bakoitzak eskainiko dituen ereduak eskariaren arabera izango direla.

Otxoak jakinarazi du hizkuntza ereduak gainditzeko A, B eta D ereduak aldatzeko aurreproiektuaren zirriborroa lantzen ari direla eta apirilean bertan aurkeztuko dietela eragileei zirriborro hori ekarpenak egin ditzaten. Izan ere,

Eusko Legebiltzarrerera eraman aurretik, proposamenak ahalik eta babes handiena izan dezan nahi dute. Legebiltzarrak osoko bilkuran onartu beharko du lege proiektu berria, hizkuntza ereduak bertan behera uzteko eta eredu bakarra hartuko duen sistema berria ezartzeko. Ondoren, Hezkuntza Sailari egokituko zaio legea garatzea horretarako dekretu eta aginduak emanez.

Irakaskuntza sistema berriarekin A, B eta D ereduak desagertuko lirateke eta euskara irakats hizkuntza nagusia bihurtuko litzateke. Eusko Jaurlaritzaren eredu berriak, euskaraz ulertzeko eta adierazteko gaitasuna bermatu nahi du; euskaraz ikasten duten ikasleek eguneroko harremanetarako euskara erabiltzeko gaitasuna izango dutela bermatu nahi dute eta 16 urterekin, Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean, hizkuntza era egokian erabiltzeko gai izatea, hau da, Europako Erreferentzia Markoak ezartzen duen B2 maila lortzea. Ikastetxeek, bestalde, tokian tokiko hizkuntza eskakizuei erantzuteko autonomia izango dute, baina lortu beharreko helburuak eta markoa mugari izanda. Hori guztia ezartzeko hamar urteko epea aurreikusi du Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak.

Ikaste prozesuak ezin muga daitezke ulertze soilera, baizik eta, oso bestela, praktika antolatzea eta ikaslearentzat esanguratsua ez den informazioa eskuratzea ere kontuan hartu behar dira

Mario Carretero



Nafarroako irakasle ordezkoak protestan

Nafarroako Gobernuaren ordezko irakasleen lanpostu zerrendetan sartzeko sistema berria dela eta, hezkuntza alorrean diharduten sindikatu guztiak, AFAPNA, ANPE, CCOO, CSIF, ELA, LAB, EILAS eta UGT desados agertu dira sistemaren aldaketarekin.

Irakasle finioen ordezkapenak egiteko, oposizioak gainditzen dituztenekin "Lehentasunezko zerrenda" osatuko du Hezkuntza Departamentuak, eta horien atzetik joango dira gainditzen ez dutenak. Azken horien artean, azterketen emaitzek balio handiagoa izango dute lehen baino.

Sindikatuaren arabera, orain oposizioetako emaitzak balio arras handiagoa hartuko du norbanakoaren esperientziarenak baino. Gauzak hala, ez dute justua ikusten horrek sor ditzakeen ondorio posibleak. Adibidez, urte-

ak lanean daramatzan irakasleak edozein kasugatik ez baditu oposaketak gainditzen, esperientzia urria baina emaitza hobekak dituen irakasle batek lehentasuna izan dezake sistema berri horretan. Hortaz, sindikatuen ustez, aldatuta horiek irakasleak egoera prekarioago batera bidera tuko ditu. Sindikatuek auzia epaitegietara eraman dute eta erabakia "erabateko inposizioa" dela salatu nahi izan dute. Sindikatuen ustez, zerrendak osatzeko sistema zaharrean emaitzei ere garrantzia ematen zitzaien baina esperientziak % 60 balio zuen eta egitura orekatuagoa zen.

Besteak beste, erabakiaren inguruko kexa plazaratzeko, otsailaren 28an eta martxoaren 4an greba egin zuten Nafarroako hainbat eta hainbat irakasle. 2000 dira irakasle ordezkoak, eta lehen greban, sindikatuen arabera greba % 70k egin zuen, gobernuaren arabera, berriz, % 31k. Martxoaren 4an, ostera, sindikatuen arabera 900 irakasle hartu zuten parte mobilizazioetan eta Hezkuntza Departamentuaren arabera, 690ek. Bigarren horretan, irakasle iraunkorren bateratzea areagotu zen.

Martxoaren 6rako hirugarren greba deitua bazuten ere, Perez Nieves kontseilaria negoziatzen hasteko prest agertu zen eta bertan behera utzi zuten deialdia. Sindikatuek, oposizioaren emaitza eta esperientziaren arteko oreka izatea nahi dute, eta horretarako foru agindua kentzea nahi dute.

Iruñeko Donibane auzoko bizilagunen plataformak auzoan euskarazko eskola eskatzen jarraitzen dutela gogorazi du. Asier Biurrin, plataformaren ordezkariek gogoratu du, behin eta berriz eskatu izan dietela Iruñeko udalari eta Nafarroako Gobernuari auzoan D eredua ezartzeko, eta "seme-alabak euskaraz heziak izan nahi badute beste auzoetara jo behar dutela" salatu dute. Plataformak, udal zinegotziekin eta Nafar Gobernuoko parlamentariekin hainbat bilera hitzartu ditu auzokideen kezka azaltzeko. Bitartean, Udalbide eta EKEk seigarren urtez jarraian D eremuan matrikulatzeko kanpaina martxan jarri dute, haien iritziz Nafarroako Gobernuo Hezkuntza departamentuak ez duelako hori lantzen, derrigorrezko irakaskuntzan dabilzan ikasleen familien herenak D ereduaren eskaera egiten duen arren.

GAIA

Elebitasunetik eleaniztasunera

*Euskarazko irakaskuntza erronka
berrien aurrean*





Euskal hezkuntzak erronka berria du, hizkuntza ereduari dagokienez. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eredu bakarra sortzeko lanean ari da Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila; Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan Euskaren Erakunde Publikoak proposamena egin du eta Nafarroan, Hezkuntza Departamentuak ingelesa indartzeko hainbat saiakera egin ditu azkenaldian. Bertan, D ereduak aurrera egin du zailtasun aunitz topatu dituen arren. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoak paisaia berria jarriko digu begien aurrean, aukera berriak zabalduko dira eta horiek baliatzeko modua bilatu beharko dugu.

G

Europako Erreferentzia Markoarekin bat eginez

Hizkuntza ereduaren erronka Euskal Herri osoari dagokion arren, Nafarroako egoera landuzen joan den otsailaren 20an Iruñean egin ziren jardunaldietan. *Elebitasunetik eleaniztasunera. Euskarazko irakaskuntza erronka berrien aurrean* izenburupean euskal hezkuntzak dituen aukerak eta oztopoak aztertu ziren. Azken urteotan D ereduak go-
ra egin du Nafarroan, baina era berean, Hezkuntza Departamentuak ingelesa indartzeko hainbat saiakera egin ditu, I eta J ereduarekin lehenik, British izeneko ereduarekin ondoren, eta aurten proposatutako eredu berriarekin azkenik; hau da, %40 ingelesez, %40 gaztelaniaz eta %20 aukerako hizkuntzan.

Nafarroan euskarak duen egoera berezia da. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan euskara ofiziala da; Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, ez da ofizialtasunik eta Nafarroan, denetik dagoela esan daiteke: eremu euskalduna alde batetik, eremu ez euskalduna bestetik, eta eremu mistoa deitzen dena azkenik. Hala ezarri zuen 1986ko abenduaren 15ean onartutako 18/1986 Legeak. Beraz, kokatuta dauden eremuaren arabera, eskubide ezberdinak dituzte nafarrek hizkuntzari dagokionez. Aipatutako eremu horietatik, euskara eremu euskaldunean soilik da ofiziala. Eremu mistoan, herritarrei zenbait eskubide aitortzen zaizkien arren, euskarak ez du ofizialtasunik. Eta hizkuntzari dagokionez, funtsean, elebarkatasunerantz zuzendutako politika egin dute azken urteetan Nafarroan, Europako beste hizkuntzekin osatzeko saiakerak izan diren arren. Etorkizunean, Europan ikasle eleanitzak prestaztea izango da erronka nagusia, elebarkatasuna eta elebitasuna alde batera utzita. Eta horren beharra azpimarratu zuten, hain zuzen ere, Iruñean bilduta-koek.

Hizkuntzen Europako Erreferen-

tzia Markoak hizkuntzak ikasteko eta irakasteko irizpideak eta orientabideak finkatu ditu eta horrek bultzada eman diezaiolke euskarari baldin eta era egokian aplikatzen bada.

Europako Erreferentzia Marko Bateratua

Europako Erreferentzia Marko Bateratuak hizkuntzak, curriculumari dagokion orientabideak, azterketak, eskuliburuak... lantzeko oinarri komuna ezartzen du Europa osoan. Hizkuntza bat ikasten duten ikasleek ikasi behar dutena deskribatzen du markoak, baita era egokian jarduteko garatu behar dituzten ezagutzak eta gaitasunak ere. Era berean, hizkuntzaren menderatze mailak finkatzen ditu eta horien bidez ikasleak egin duen aurrerapena neurtzeko aukera ematen du. Beharrezko ikusten da hizkuntzen ikaskuntza bizi-tza osoan zehar sustatzea. Markoa oinarri bateratua da eta hizkuntza komunikazio tresna izanda, ikasleek zer ikasi behar duten deskribatuko du.

Markoak era berean, hizkuntza horien inguruan lortutako mailari dagokionez, autoebaluaziorako tresna zehazten du: portfolioa. Autoebaluazioaren bidez, ikasleek hainbat hizkuntzatan dituzten gaitasunak bertan jasoko lituzkete. Eta horrez gain, hizkuntzen pasaporteak deitzen dena ere zehazten du; horrek, pertsona bakoitzak hainbat



Nafarroaren egoera eta Europa

hizkuntzatan duen ezagutza mailajaso-ko du eta Europako edozein herrialde-etan izango du balioa. Beraz, Europako edozein herrialdetan egiazatu ahal izango dugu gure hizkuntza gaitasuna.

Edozein hizkuntzak bere egin dezake markoa eta irakaskuntzako eragile guztientzako tresna izango da. Paul Bilbao, Behatokiko zuzendariak esan zuenez, tresna interesgarria da, hizkuntza guztietan nolabaiteko homologazioa lortzen delako.

Markoak erreferentzia maila bateratuak zehazten ditu hizkuntzaren menderatze maila zein den neurtzeko eta horretarako neurketa irizpide batzuk eta deskripzio irizpide batzuk finkatzen dira. Erreferentzia maila horiek definitzeko, markoak, ebaluaziorako deskribatzaile argigarriak erabiltzen ditu, ikasleak zein erabiltzaile mota multzoren barruan sartzen diren ikusteko. Deskribatzaile argigarri horiek hiru irizpideren arabera finkatzen dira: komunikazio jardueri dagokienez, estrategiei dagokienez eta komunikazio gaita-

sunei dagokienez. Horren bidez, erabiltzaile motak zehazten dira: oinarrizko erabiltzailea, erabiltzaile independentea eta erabiltzaile gaitua.

Aurrerantzean zenbait gai definitu beharko ditugu: adibidez, zer hizkuntza gaitasun izan behar dute ikasleek DBH amaitzean?

Paul Bilbaok esan zuenez, B2 erabiltzaile mota lortu behar dugu: "Euskarak estatusa duen lurraldean ari bagara, B2 maila lortu behar dute gutxienez, erabiltzaile independenteak izan behar dute, zalantzarik gabe. Baina Nafarroan egitura arazoa dugu horri dagokionez. Hori legeak ezarritako eremu euskaldunean ari diren ikasleei soilik aplikatu diezaiekegu nolabaiteko babes juridikoa dagoelako. Baina, beste bi eremuetan diskurtso propio eta koherentea ere gara dezakegu, eta hor aplikatzea edo ez, borondatearen esku gera liteke. Lehen, legearen arabera, gaitasun maila nahikoa eskatzen zen, baina orain hori kuantifikatu eta markora ekarri behar dugu. Teorian, hizkuntza

baten ofizialtasunak eta hezkuntzak harremana dute eta ikasleek lortu behar duten ezagutza maila ofizialtasunaren ondorio juridikoari lotzen zaio".

"Azken boladan asko aipatzen da 2002an Bartzelonan Europako Batasuneko ministroen kontseiluak egin zuen bilera. Han, Europako Batasunak hizkuntza aniztasunaren inguruko proiektua aurkeztu zuen eta adin goiztiarlean ikasleak beste hizkuntzaren bat ikasteke bidean jartzea komeniko litzatekeela esan zuten. Baina kontuan izan behar dugu Europako Batasunak egiten dituen gomendioak estatuetan oinarritutakoak direla eta hori ez zaiola gure errealitateari lotzen. Beraz, diskurtsoa, bereziki, euskarak izaera ofizialik ez duen Nafarroako bizonaldeetan garatu behar dugu", jarraitu zuen Bilbaok. Horrek aukerak ekar ditzakeen moduan, arazoak ere ekar ditzake Bilbaoren hitzetan: "Bi hizkuntza horiek zein izan behar duten definitzeko proposamenak egiten hasi dira: lehena estatuko hizkuntza, bigarrena nazioarteko hiz-

ERABILTZAILE GAITUA	C2	Gai da irakurtzen edo entzuten duen ia guztia erraz ulertzeko. Badaki idatzizko nahiz ahoko iturri desberdinetatik datorren informazioa eta argudioak berreraikitzen, eta era koherentean eta labur adierazten. Badaki bat-batean, jarioasun handiz eta zehaztasunez gauzak adierazten, eta esanahiaren nabardura txikiak bereizten ditu, baita konplexutasun handiko egoeretan ere.
	C1	Gai da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta nolabaiteko eskakizun-mailari erantzuteko, eta gai da, orobat, testu horietan esanahi inplizituei antzemateko. Badaki jarioasunez eta bat-batean gauzak adierazten, esapide egokia aurkitzeko ahalegin handia egiten ari denik sumatzen ez zaiola. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa-, artikulazio- eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz.
ERABILTZAILE INDEPENDIENTEA	B2	Gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoak ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorrizko hitzuneekin mintza daiteke, jarioasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahalegin egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorre buruzko ikuspegi jakin bat aldeztuko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez.
	B1	Gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian. Badaki hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan bidaiatzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen. Gai ezagun edo interes pertsonaleko buruzko testu soilak eta koherenteak osa ditzake. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai da, eta gai da, orobat, bere iritzia labur-labur arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko.
OINARRIZKO ERABILTZAILEA	A2	Bereziki esanguratsuen dituen esperientzia-esparruekin loturiko esaldiak eta esapideak, eguneroko bizitzakoak, ulertzeko gai da (bere buruari eta familiar buruzko oinarrizko informazioa, erosketei, intereseko lekuei, lanbideei eta abarri buruzko informazioa). Badaki ataza soilak eta arruntak egiteko orduan komunikatzen, baldin eta ezagunak edo ohikoak dituen gaiei buruzko informazio-truke erraza eta zuzena bakarrik eskatzen badute. Badaki bere iraganaz eta inguruneaz deskribapen errazak egiten, baita bere berehalako beharrei buruzko deskribapenak egiten ere.
	A1	Gai da eguneroko bizitzan sarri erabiltzen diren esapideak ulertzeko eta erabiltzeko, eta baita berehalako beharrik asetzera bideratutako esaldi soilak osatzeko ere. Badaki bere buruaren eta besteren aurkezpena egiten, eta helbideari, gauzei eta ezagutzen duen jendeari buruzko oinarrizko informazio pertsonala ematen eta eskatzen. Oinarrizko harremanak izan ditzake, baldin eta solaskideak mantso eta argi hitz egiten badio eta laguntzeko prest badago.



kuntza eta orain hizkuntza mota berria sartu dute: adopzio hizkuntza pertsonala. Etorकिनен kasuan adopzio hizkuntza pertsonala bizi diren estatuko hizkuntza litzateke. *Totum revolutum* bat dago; proposamena egin dute, baina ikusi dute ez dela aplikagarria eta guk pentsatu behar dugu, nola txertatzen dugun hori geure diskurtsoan”.

Markoa aplikatzen hasi dela esan zuen Paul Bilbaok. Estatu frantziarren markoa aplikatzen ari dira, eta ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzen dutenean, hizkuntza biziei dagokienez, nolako erabiltzaileak izango diren zehazten da.

Euskararen Kontseiluaren proposamena

Euskal Autonomia Erkidegoan curriculum berrian, markoak aplikatzen dituen maila horiek aipatzen dira eta DBH amaitzean, ikasleek bi hizkuntza ofizialetan B2 motako erabiltzaileak izan behar direla eta hirugarren hizkuntzan B1 maila lortu behar dutela zehazten da. Beraz, markoaren araberako planteamendua egin da dagoeneko.

A, B eta D ereduak ez dute emaitza onik eman gaur arte eta orain, Europako markoaren aplikazioarekin batera, eredu bakarra aplikatzekotan da Eusko Jaurlaritza. Horretarako, proposamen bat egin zezala eskatu zion Euskararen Kontseiluari eta proposamen horretan hainbat alor jaso dituzte, tartean hizkuntzaren ebaluazioari dagokiona.

Ebaluazioak behetik gorakoa izan

behar duela proposatu dute Arantxa Urbe, txostenaren egileak eta Hik Hasi-ko kideak esan zuenez. Eta ebaluazio hori egiteko zenbait une proposatu dituzte:

- Haur Hezkuntzaren amaieran, hau da, ikasleek bost urte dituztenean, ikasleek ezagutzen dituzten hizkuntzen aurre-ebaluzioa egitea, ebaluazio glotobiografikoa. Proba horretan entzumena eta adierazpena neurtuko litzateke. Beraz, ikasleak Lehen Hezkuntzara sartzean, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez duen maila zein den jakiteko modua izango litzateke eta irakurketa-idazketa prozesuan sartzerako doanean landu beharko duena zer den jakingo genuke.

- Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloaren amaieran neurketa egitea proposatzen dute. Horrek aplikatu ditugun plangintzak egokiak diren edo ez ikusteko balioko luke eta ikasleak hizkuntza aldetik planifikatu dugun neurrian garatzen ari diren edo ez.

- Lehen Hezkuntzako Bigarren Zikloaren amaieran, LOEk diagnosia deitzen den proba ezartzen du, eta legez egin behar da neurketa hori.

- Lehen Hezkuntzako Hirugarren Zikloaren amaieran, B1 proba pasa behar lukete bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere.

- DBHko Lehen Zikloaren amaieran, LOEk diagnosiaren beste proba bat ezartzen du.

- DBH amaitzean, euskaraz eta gaztelaniaz B2 maila izan beharko lukete ikasleek eta atzerriko hizkuntzari dagokionez, B1 proba pasa beharko lukete.

Eusko Legebiltzarrak euskararen maila B2 mailaren parekoa izatea ezarri du, baina Euskararen Kontseiluak, B2 maila gutxienezkoa izatea proposatu du: “Maila nahikoa apala da eta pentsa-

tzen dugu ikasle asko hortik gora dardela. Beraz, nahi duten ikasleei C1 proba aurkezteko aukera ematea proposatu dugu”, esan zuen Urbek. “Gure ustez ebaluazioak hezigarria eta deskribatzailea izan behar du, asmatzen ari ote garen eta akatsak edo zuzendu beharreko alderdiak non egon daitezkeen ikusteko. Hori dela eta, ebaluazio horiek fundazio batek egitea proposatu dugu, soilik administrazioaren eskuetan geratu gabe. Fundazio hori administrazioak, unibertsitateak, Euskararen Kontseiluak eta hezkuntza eta hizkuntza arloan aritzen diren eragileek osatzea aurreikusi dugu. Horien lan proba horiek prestatzea, kudeatzea eta emaitzak publiko egitea litzateke, baina emaitza horien trataera hezitzaile eginez”, gaineratu zuen Urbek.

Bestalde, ikasleak ebaluatzeaz gain, ikastetxeak eta euren hizkuntza proiektuak ebaluatzea proposatu dio Euskararen Kontseiluak Hezkuntza Sailari, baita erantzukizunak zehaztea eta mailakatzea ere. Izan ere gerta daiteke ikasle batek B2 maila bere erantzukizunez ez lortzea, baina gerta daiteke ez gairatzea ikastetxe horrek ez duela hizkuntza proiekturik, edo duena ez delako egokia. Kasu horretan erantzukizuna kolektiboa izango litzateke eta horrelakoetan, administrazioak ikastetxe horretan emaitza horiek izateko gertatu dena aztertu dezala proposatu dute. Ikastetxeak baliabide gehiago behar baditu edo indartze neurriak behar baditu, aplikatu beharko zaizkio. Eta erantzukizuna kolektiboa den kasuetan, ikasleei beste aukera bat ematea eskatzen da. Azkenik, ikasleek hizkuntzak egiaztatzeko agiriak izango dituzten moduan, ikastetxeek ere halakoak izatea proposatu du Kontseiluak.

Psikologia eta soziologia

Maria-Jose Azurmendi

Euskararen eta gainerako hizkuntzen irakaskuntza psikologia eta soziologia kontuan izanik

Eleaniztasunaren ikuspuntutik, hizkuntza bat baino gehiago dakizkien pertsonak, hizkuntzek elkarri eragiten dioteneko komunikazio gaitasuna garatzen du. Beraz, ikasle bategarriaren hizkuntza ikasten duenean, ez du ama-hizkuntzari dagokion gaitasunik galtzen; ikasleak ez ditu elkarren artean harremanik ez duten komunikatzeko eta jarduteko era berriak hartzen, ikaslea eleaniztun bihurtzen da eta kulturartekotasuna garatzen du. Maria-Jose Azurmendi psikologia katedradunak, eleaniztasunaren garrantzia aintzat hartu eta hizkuntzen irakaskuntzari buruz hitz egin zigun, psikologia eta soziologia kontuan izanik. Hemen duzue Azurmendik esandakoaren laburpena.

Elebitasuna eta elebiduntasuna ez dira gauza bera eta uste dut bereiztea komeni dela. Elebitasuna gizartean ematen da eta elebiduntasuna, pertsonengan. Gauza bat da gizarte elebiduna izatea eta beste bat, hainbat hizkuntza ukipen egoeran egotea eta maila berean ez dauden hizkuntzak ikastea. Gurean euskara, atzerriko hizkuntza izango balitz bezala ikasten da eta ukipen egoeran badago ere, ez balego moduan funtzionatzen du. Beraz, egoera horretan elebiduntasuna garatzea nekeza da.

Nik garrantzi handia ematen diot harreman sareari eta interesgarria irudi-

tzen zait, pertsonaren nortasuna nola lotzen den hizkuntzaren jabe kuntzarekin harreman sarearen arabera. Ukipen egoeran dauden hizkuntzen kasuan, nortasunak garrantzia hartzen du; euskara ikastea, eta gaztelania ikastea agian ere bai, nortasun arazoak sortzen dira. Interesgarria da beraz, pertsona bakoitzak dituen harreman sareak aztertzea eta sare horietan hizkuntzek nola funtzionatzen duten ikustea.

Bestalde, psikologiaren helburu nagusia prozesuak eta portaerak azaltzea da, pertsona mailan eta talde mailan. Eta bai prozesuetan eta baita portaeretan ere, hizkuntzek garrantzi handia dute, hain zuzen ere hizkuntzen bidez transmititzen ditugulako. Motibazioak ere garrantzi handia du. Ingelesa, adibidez, komunikatzeko ikas dezakegu, atzerriko goazenean elkar ulertzeko. Baina ukipenean dauden hizkuntzak ikasterakoan, hizkuntza gutxiak arazo asko topatzen ditu. Gurean, gaztelania ikastea inork ez dio bere buruari galdetzen ongi menderatu nahi duena edo ez. Gure kasuan beraz, arazoa euskararekiko motibazioa da, ez beste hizkuntzekiko motibazioa. Eta afektibitateari dagokion ezaugarriak ere, normalean gutxiengo egoeran dauden hizkuntzekin lotzen dira, beldurrez aritzea, esaterako.

Adinari dagokionez, onena hizkuntza ahalik eta azkarren ikastea da: bi eta hiru urte artean aldaketa batzuk ematen dira eta adin horretan psikologikoki ematen diren hainbat ezaugarri balia



ditzakegu. Euskara dominatzailea izateko, garrantzitsua izango litzateke euskalduna ez denak hizkuntza hori lehen bait lehen ikastea, bi urterekin bada, hobe. Adin horretan soziologikoki dauden ezaugarriak ere baliatu behar ditugu, haur horiek etxean eta eskolan dituztenez gain, ez dutelako bestelako harreman sarearik izaten.

Eragin handia dute baita ere atxikimenduak eta sozializazioak. Eta baita autonomiak eta elkarrekintzak ere. Eta imitazioa eta sormena ezin ditugu alde batera utzi. Imitazioaren bidez gauza asko ikasten da baina euskara hizkuntza bizia izatea nahi badugu, beharrezkoa da sormena lantzea. Bestalde, garrantzitsua da gure haurrak euskararen erabilera anitzean heztea.

Soziologiari dagokionez, oso garrantzitsua da hizkuntza ukipenean dau-



den hizkuntzak zein diren jakitea. Hizkuntzak ukipen egoeran daudenean, asimetriak egoten dira eta desoreka geroz eta handiagoa izan, hizkuntzetako batek botere handiagoa izango du. Hegoaldean gaztelaniak du boterea, euskara egoera okerragoan dago, eta interesgarria litzateke euskararen aldeko diskriminazio positiboa egitea. Beraz, hizkuntz ukipena estatusaren arabera ere ulertu behar da eta euskararena pixkanaka aldatzen ari den arren, erakarriagoa da gaztelania euskara baino. Dena den, askotan, nortasunak bultza-

tzen gaitu hizkuntza baten aldeko hautua egitera; adibidez, unibertsitatean euskaraz ikasten duten ikasle askok nortasunarengatik egiten dute nahiz eta askok onartzen duten beren euskara maila gaztelania maila baino baxuagoa dela. Haientzat biderik errazena gaztelaniaz ikastea litzateke baina ez dute horrela egiten. Askotan, D erduan ikasi duten arren, euskara hizkuntza berezi moduan ikasi dute eta akademikoki ongi funtzionatu badu ere, ez dugu lortu bizitza osorako hizkuntza izatea.

Nik uste dut eleaniztasuna beharrezkoa dela. Baina gure egoera soziala ez da eleanitza eta eleanizdunak sortzeak arazoak dakartzat hizkuntza gutxituarentzat. Psikologia aldetik frogatua dago eleaniztasuna posible dela, beraz, psikologikoki hainbat hizkuntza ikas ditzakegu inongo arazorik gabe. Arazoa, soziologian topatzen dugu eta psikologiaren eta soziologiaren arteko lotura beharko litzateke.

Euskara hizkuntza osoa izatea eta gure gaitasuna osoa izatea nahi badugu, ezinbestekoa dugu motibazioa gure alde erabiltzea.

Pablo Sotés

Haurren hizkuntza gaitasuna ikuspegi psikolinguistikotik

Eleaniztasuna posible dela aldarrikatu zuen Pablo Sotés NUPeko psikologia irakasleak eta mitoa hautsi behar dela aipatu zuen, eleaniztasuna ez delako hainbat elebakartasun biltzea, baizik eta zerbait gehiago. Dena den, hizkuntza bat baino gehiago lantzean kontuz aritu behar dugula aipatu zuen, gehitze horrek positiboa izan behar duela eta eleaniztasun gehigarria bilatu behar dugula bertako hizkuntzari kalterik egin gabe. Kasu horretan eleaniztasunak eragin positiboa izango du garapen kognitiboan. Hor kokatuko litzateke Sotés-en esanetan elkarmenpekotasun linguistikoaren teoria; hizkuntzak elkarren menpe daude eta hizkuntza baten bidez ikasten duguna beste hizkuntzera transferitzen da. Hauek dira Sotésék azaldu zizkigun zortzi ondorioak:

1 Europako hezkuntza sistemetan derrigorrezko hezkuntza amaitzean, atzerriko hizkuntzak menderatzea helburu nagusi bihurtu da.

2 Hizkuntza bat ikasteko ahozko eta idatzizko trebetasunez gain, hainbat gaitasun menperatu behar dira. Eskolan hizkuntzen arteko zubia jartzea ezinbestekoa da. Hori lortu ezean, ezin izango dugu eleaniztasun aberasgarria lortu.

3 Eleanitza izateak hainbat abantaila

la ditu.

4 Eskolako testuinguruan hirugarren hizkuntza ikasteak garapen kognitiboan eta gainerako hizkuntzetan ondorio mesedegarriak ekar ditzake.

5 Hizkuntzak irakasteko tresna gisa erabiltzea, irakaskuntza eleanitzaren metodologiarik eragikorrena da; hizkuntzak erabiltzea eta ez hizkuntzak irakastea.

6 Murgiltze ereduak bigarren hizkuntza ikasteko eraginkorrak badira,



hirugarren hizkuntza ikasteko ere eraginkorrak izango dira.

7 Eskola edo programa eleanitza bultzatzeak hainbat hezkuntza mailatan burutu behar den epe luzerako proiektua eskatzen du.

8 Eskola elabidunak eleaniztun bihurtzeko hizkuntzen artean zubiak eta integrazioak bilatu behar dira nahi-taez.

Hizkuntza-proiektuak

Lizarra ikastola

Hizkuntza-proiektua eta normalizazioa lantzeko esperientzia

Lizarra ikastola Nafarroako eremu mistoan dago kokatua, baina eremu ez euskaldunean bizi diren ikasleak ere joaten dira bertara. 1970ean sortu zen eta 35 ikasleekin hasi zuen ibilbidea haur erdaldunen murgiltze sistema moduan, orduan batek ere ez baitzekien euskaraz. Ia 40 urteko ibilbidea egin du Lizarra ikastolak eta gaur egun hizkuntzen trataera euskaldun eleaniztuna dute, hau da, hizkuntza gutxituan ardaztutako eleaniztasuna. Josu Reparaz zuzendariak eta Mainer Etxaniz, curriculumaz kanpoko arloko arduradunak eman ziguten esperientziaren berri.


Lizarra ikastolan hizkuntzen trataera euskaldun eleaniztuna egiten dute, hau da, enbor moduan euskara dute, haiek indartu nahi duten hizkuntza delako. Bigarren hizkuntza gaztelania da, ikasle gehienen ama hizkuntza delako. Ondoren ingelesa agertzen da beste adar garrantzitsu moduan, eta azkenik, frantsesa lantzen dute 12 urtetik aurrera. *Ikus 1. irudia.*

Zuzendaritzak eta hizkuntza arduradunek hizkuntza-proiektu berri baten beharra ikusi zuten duela urte batzuk. Gizartea asko aldatzen ari da eta hizkuntzaren eta eleaniztasunaren ikuspegi berriak kontutan hartuz, egoera berrira egokitu beharra zegoela ikusi zuten.

Bide horretan, ikastolako hizkuntzen erabilera eta trataeraren diagnostia egin zuten. Diagnostia egitea urte osoko lana izan zen eta egoera ezagutzeko eta hurrengo urratsak emateko oinarria izan zen. Hortik abiatuta lehenetsun batzuk eta helburu batzuk finkatu zituzten eta 'Hizkuntza Proiektua' dokumentuaren lehen bertsioa idatzi zuten: hizkuntzekiko esku-hartze eremuak zehaztu zituzten eta funtzionamendu markoa finkatu zuten. Lau urteko lan plangintza estrategikoa da, eta lau urte-tik behin berrikusten dute beharrezkoak diren aldaketak egiteko. Hori finkatuta, urteko plan zehatzak egiten dituzte eta Hizkuntza-proiektua bera aldatzen joaten da.

Hizkuntza-proiektuaren beharra

Hizkuntzaren eta horren didaktikaren ikuspegi aldaketarekin behar batzuk ikusi zituzten Lizarran. Hizkuntz irakasleen artean ez zegoen batasunik metodologiari zegokionez eta gehienetan, ikuspegi estrukturalista nagusitzen zen. Ikuspegi komunikatibora jo behar zutela ikusi zuten argi eta garbi; ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa ongi ulertu behar zituztela eta baita ere ekoiztu, bai ahoz eta bai idatziz. Beste



gauza batetaz ere jabetu ziren: ikasleei oso denbora gutxi uzten zitzaizela hitz egiteko. Hortik ondorioztatu zuten ahozko eta idatzizko komunikazioan hutsune handia zela eta hainbat erabaki hartu zituzten, adibidez, jendaurreko azalpenak eta irakurketa ozena lantzea. Euskarako irakasleak hori lantzen zuten: aho komunikazioaren elementuak, eman beharreko pausua... Eta gainerako irakasleek hori bera eska zezaketen bazekitelako ikasleek hori landuta zutela. Hizkuntza batek komunikaziorako gaitasuna eskaini behar du eta hori, ikasgai guztietan landu behar den zerbait da. Hizkuntza eskolako bizitzaren erdi-erdian kokatzen dute. *Ikus 2. irudia.*

Beraz, hizkuntzaren xedea hau litzateke: ikasleen komunikazio gaitasunak garatzea, hizkuntza bizitzako egoera eta behar guztietarako tresna eragingarri gisa erabil dezaten.

Beraz, eleaniztasunaren ikuspegi aldaketa ematen da: ikuspegi elebaka-





retik eleaniztera. Hizkuntzak modu isolatuan lantzen ziren eta ez zegoen horien arteko koordinaziorik; mintegi bakoitzak bere lan ildoan zuten eta hori aldatu beharra ikusi zuten. Beraz, ikuspegi eleaniztaren aldeko apustua egin zuten: hizkuntza batean lortutako hainbat gaitasun eta ezaguera, erabiltzen diren beste hizkuntzetara transferitzen dira, baldin eta beste hizkuntza horietan komunikazio aukerak eta motibazioa ematen badira. Eta horretan lanean jarri ziren Lizarran. Baina aldaketa horrek, izugarritzako komunikazioa, koordinazioa eta formazioa eskatzen zuten.

Hizkuntza-proiektua, euskara eta euskalduntasuna ardatz harturik, ikastolan lantzen diren hizkuntzak, eta beste arloetan, irakaskuntzari eta erabilerrari dagozkien alderdiak era koherentean biltzen dituen dokumentua da Lizarrako ikastolakoentzat. Eta Hezkuntza komunitate osoaren erantzukizuna eskatzen du. Eskolako eremu guztiak kontuan harturik hizkuntza politika eraginkor baten planifikazioa beharrezko ikusi zuten eta horretarako, diagnostikoaren ondorioak ongi aztertuta eta hizkuntzaren egoeraren hobekuntza bultzatu nahi zuten, esku-hartze eremu guztietan eragin zuten.

Eremu pedagogikoan, curriculumaren eremuari garrantzia ematen diote eta gela barruan hizkuntzari dagokionez, hizkuntzako arloetan eta bestelakoetan gertatzen diren harremanak

eta elkarrekintza didaktikoak kontuan hartzen dituzte. Hizkuntzen arloko eta gainontzeko arloetako curriculumak agertzen dira eta helburuak, jarduera motak, metodologia eta ebaluazioa zehazten dituzte. Hizkuntzaren garapenean, ikastolan lantzen dituzten hizkuntza guztien artean hizkuntzaren inguruko helburu eta edukien sekuentzializazio garbia eta koordinatua garrantzia, ikuspegi metodologiko bera partekatzea eta elkarrekin bideratzeko estrategiak partekatzea giltzarri dira. Proiektu osagarriak eta profesionalen prestakuntza ere bertan txertatzen dira. Interakzio didaktikoaren atalean, berriro, hauek sartzeko dira: gela barruko harremanak, arlo bakoitzean zer hizkuntza erabiltzen den, gelako lanean ikasleek ahozkoak lantzeko zer aukera duten eta hori guztia aurrera eramateko zer baliabide dituzten.

Bestalde, askotan alboratzen den curriculumaz kanpoko eremua ere lantzen dute. Izan ere, euskararen normalizazioan pausoak emateko, ezinbestekoa da arlo akademikoaz gain, ikaslea-

ren gainerako bizitza esparruetan eragitea, haietan ohiko komunikazio hizkuntza euskara izan dadin bitartekoak jarri. *Ikus 3. irudia.*

Kontuan hartu beharreko beste eremu bat, eremu instituzionala litzateke. Eta harremanak ere, ezin dira alde batera utzi. Lizarra ikastolak etengabeko harremanak ditu inguruarekin eta familiekin eta esparru horretan hartzen dituzten erabakiak funtsezkoak dira testuinguru ahalik eta euskaldunena ziurtatzeko eta ikasleak euskara erabiltzeko aukerak zabaltzeko. Hizkuntza paisaia zaintzeko hizkuntza irizpideak ezarri eta horien jarraipena ziurtatu beharra ikusi dute, baita hezkuntza komunitatearen harreman sareetan euskararen erabilera eragozten duten etekak identifikatzeko eta gainditzeko estrategiak zehaztu beharra ere.

Beraz, eleaniztasuna lantzeari garrantzi handia ematen diote Lizarra ikastolan, beti ere, euskararen oinarrituta. Bide horretan jarraitzen dute lanean eta oraingoz, emaitza onak jasotzen dituzte.



xavier roegiers

alexia peyser

ELKARRIZKETA

Lovaina Berriko (Belgika) Unibertsitateko irakasleak eta BIEF
bulegoko kideak

// Integrazioaren pedagogian
helburua ez da ezagutza; ezagutza,
gaitasunak garatzeko baliabidea da //



xavier roegiers alexia peyser

E

// Hezkuntzari dagokionez, munduan estandarizazioa da joera orokorra. Lana erreferentzia marko batzuetara bideratzen da eta askotan ikusi dugu marko horiek hutsak direla. Erreferentzia marko horiek ditugula jakinda, izan Europakoak edo estatutik datozenak, erronka, hezkuntza proiektu indartsuen, zehatzen eta egokien bidez erantzutea da, hutsik dauden espazio horiek betetzeko.

//

Integrazioaren pedagogian oinarritzen dute beren lana Xavier Roegiers-ek eta Alexia Peyser-ek. BIEF bulegoan aritzen dira lanean, hezkuntzan eta prestakuntzan adituak diren pertsonen osatutako bulegoan, eta Roegiers da bertako zuzendaria. Munduan, hezkuntza erreformak egiteko prozesuak laguntzen dituzte eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak ere, laguntza eskatu zien. Ikastolak, curriculum gaitasunen araber berdefinitzen ari dira eta horren inguruko iritzi teknikoak jaso nahi izan dute. Zazpi alorretan eman dute haien iritzia bi adituek: curriculum, eskuliburu didaktikoak eta eskolako liburuak, formazioa, ebaluazioa, hizkuntzarekin zerikusia duten proiektuak, aisialdiarekin zerikusia duten proiektuak eta komunikazioaren eta informatikaren teknologiak.

Gaitasunetan oinarritutako pedagogia proposatzen dute bi adituek, integrazioaren pedagogia. Euskal Herriko errealitatea aintzat hartuta, hori aplikatzeko aukerei buruz hitz egin digute eta esan digutenez, horrekin bat egiten duten hainbat ezugarri topatu dituzte gurean.

Zein da BIEFen lana?

Alexia: Herrialde askotan egiten dugu lan, curriculumean, eskola programetan, material didaktikoaren lanetan, irakasleen prestakuntzan eta ebaluazio sisteman. Hori guztia gaitasunetan oinarritutako ereduaren banean lantzen dugu; integrazioaren pedagogian oinarritzen gara. Integrazioaren pedagogiaren oinarria gaitasunen araberako ikuspegia da. Integrazioaren pedagogia, egoera-arazo bat konpontzeko baliabideak mobilizatzea da; baliabide horiek mugitzen ikastea. Horrela, zentzua emango zaio haurrek ikasten dutenari eta gainera, arazo hori konpontzeak, herritar parte-hartzaileak, kritikoak eta laguntzeko prest dauden herritarrak sortzea ahalbidetuko du. Helburua ez da jakitea; ezagutza bidea da, gaitasuna garatzeko bidea edo baliabidea. Esate baterako, gidatzeko, frenatzen, autoa nola osatzen den, gidatzeko arauak zein diren, argi berdeak aurrera egin dezakegula esan nahi duela eta gorriak, geratu egin behar dugula esan nahi duela jakin behar dugu. Baina hori guztia jakiteak ez du esan nahi gidatzen dakizunik; elementuak, baliabideak dituzu, baina gidatzea horiek artikulatzea, bateratzea eta kotxea A puntutik B puntura mugitzea da.

Xavier: Baldintza batzuekin, jakina. Hau da, autoa A puntutik B puntura mugitzea, inor harrapatu gabe!

Alexia: Ezagutza garrantzitsua da, baina ez da gaitasunen sinonimoa. Gauzak jakiteak ez du esan nahi horietan trebea zarenik, trebea izateko, gai izateko, elementu horiek guztiak egoera jakin batean erabiltzen jakin behar duzu eta arazoak konpontzen jakin behar duzu. Horrek gaitasunaren dimentsio sozialera garamatza; ni ez naiz gai autoa mugitzerik ez badut.

Xavier: Gaitasunak curriculumean definitzeko beharra hortik dator, era konplexuan eta era zehatzean aldi berean. Era zehatzean, gaitasuna lortu dela ebaluatu ahal izateko. Zeren hori da gaitasunekin dugun arazoa: nola ebaluatu?

Alexia: Normalean irakasleentzat



zaila da ebaluazio horretan justua izatea. Hau da: zuk esango didazu gidatzeko gai naizen edo ez autoa leku batetik bestera mugitzen dudala ikusten duzunean. Arau batzuk daude ebaluazio horiek bidezkoak izan daitezzen. Adibidez, hiru aukera izango direla autoa mugitzeko eta horietatik bitan ongi egin behar duzula, ikus dadin ez dela zorte kontua izan, edota beldurrak geldiarazi bazaitu, hurrengo batean aukera izan dezazun gidatzeko gai zarela erakusteko. Beraz, huts egiteko eskubidea aurreikusten da eta haur bakoitzaren ikasketa prozesua errespetatzeko eskubidea aintzat hartzen da, ikaslearen erritmoa errespetatzen da.

Xavier: Bat egiten dugu ikasgelara erreformarekin iristek sortzen duen ardurarekin. Lan egiteko eran bat egiten dugu puntu askotan Ikastolen Konfederazioarekin; sintonia topatu dugu. Ikastolen Konfederazioak, guk eta nazioarteko hezkuntza arloko zenbait erakundek, UNESCOk eta UNICEFek esaterako, kalitatearen eta ekitatearen arazoari aurre egin behar diegu; kalitatea eta ekitatea uztartu behar ditugu. Gaitasunen araberako ikuspegiak horri erantzuten dio baldin eta ikasgelan aplikatzen bada. Ardura horretan ere, bat egin dugu. Eta joera hori, hezkun-

tzan orokorrean gertatzen ari denaren kontra doa, izan ere ikasgelan ikaslearen arteko aldea handitzen ari da. Ekitatea alde batera uzten ari da, azkarragoak direnei laguntzen zaie eta motelago doazenak baztertzen ari dira. Ekitateari garrantzia eman behar zaio eta horretarako tresna egokiak erabili behar dira.

Zer da Euskal Herrian topatu duzuen? Ikastolek urte asko



daramate lanean eta euskal curriculumaren gaia ere aspaldikoa da... Sintonia aipatu duzue, non topatu duzue sintonia hori?

Alexia: Hezkuntza proiektuaren jatorria garrantzitsua da guretzat. Proiektua testuinguru zehatz batean txertatzen da eta oso era egokian. Gurasoen paperak atentzioa eman digu, prozesuaren eta proiektuaren alde aktiboa direlako. Gainera denboran zehar proiektua legitimatu egin da eta pauso berri bakoitza pentsatuz eman da, bai barne mailan eman diren pausoak eta baita gizarteko hainbat eragilerekin batera eman direnak ere. Sistemaren barneko edozein elementu berri kontsultatzen da eta sistemaren har-tzaileek (eskola komunitatea, gurasoak, haurrak...) balioztatzen dute. Lan egiteko logika horrek bat egiten du BIEFekin eta gaitasunen araberako ikuspegiarekin. Urteen poderioz frogatutako metodologia izan da eta nahikoa solidoa, koherentea da, baina beti logika lokal, nazional, kultural bakar bati erantzuten dio. Ideia hori, hau da, integrazioaren pedagogia euskaldun bat izatea (edo angolara, mauritaniarra...) kanpoko ereduak goitik behera instalatuko direnaren logikarekin haustea da eta nonbaiten funtzionatu

xavier roegiers
alexia peyser

E

// Gaitasunen araberako ikuspegia, integrazioaren pedagogia, metodo bat da, baina tokian tokiko taldeek garatu behar dute, hezkuntza sistemaren aktoreekin elkarlanean. Metodoa lantzen dugu baina horrek balioak eta lehentasunak islatu behar ditu, gizarteak dituen helburuak islatu behar ditu eta elementu kulturala gaitasun horietako bakoitzaren formulazioan egongo da.

//

badute, hemen ere funtzionatuko dutenaren ideiarekin haustea. Beste herrialde batzuetatik inportatutako proiektu horiek porrot egin izan dute; garapen bidean dauden herrialdeetan askotan ikusi izan dugu hori. Izan ere, sarritan ez da planteatu ere egin eskolaren testuinguruaren garrantzia eta zer beharrei erantzun behar dien. Baina hemen, hausnarketa hori hasieratik egin da.

Xavier: Lan hau proposatu zigutenean, harritu egin ninduen ikastolen lanaren dimentsio humanistak. Nahiz eta ikasle bakoitzarekin arduratu, dimentsio unibertsalaz eta eskolak komunitatearen barnean duen funtzio unibertsalaz ere arduratzen dira. Hori ere bat dator gure ikuspegiarekin.

Baina arazo bat dugu: curriculumak beti estatuak berak ezarri du eta horrek gutxieneko batzuk ezartzen ditu. Gauza bat gaitasunak dira, eta bestea une oro jakin beharrekoa... Nola uztar daiteke hori?

Xavier: Hezkuntzari dagokionez, munduan estandarizazioa da joera orokorra. Lana erreferentzia marko batzuetara bideratzen da eta askotan ikusi dugu marko horiek hutsak direla, hau da, ez dutela edukirik. Erreferentzia marko horiek ditugula jakinda, izan Europakoak edo estatutik datozenak, erronka, hezkuntza proiektu indartsuen, zehatzen eta egokien bidez erantzutea da, hutsik dauden espazio horiek betetzeko. Lan hori behetik gora egin daiteke ikastolek duten proiektuaren modukoekin. Beraz, bi puntu horiek elkar daitezke; eskolak dituen beharrak alde batetik, eta gizarteak dituen beharrak bestetik, horrela orain arte hutsik egon diren arlo horiei erantzuteko.

Estandar multzo horiek eta indarrean dagoen normalizazioa, normalean ikasleen prestakuntzara bideratuta daude, gizartean aktibo izango dien emakume eta gizonak prestatzera bideratzen dira, hau da, hezkuntzaren alderdi bakar batera. Baina alderdi soziala, kulturala eta komunitarioa ere aintzat hartu beharko litzateke.



Ikastolen izaeraren zeinu bat euskal kulturaren transmisore izatea da. Gaitasunen araberako ikuspegiak bermatuko al luke kultura transmisio hori?

Alexia: Bai, argi eta garbi. Gaitasunen araberako ikuspegia, integrazioaren pedagogia, metodo bat da, baina tokian tokiko taldeek garatu behar dute, hezkuntza sistemaren aktoreekin elkarlanean. Guk metodoa lantzen dugu baina horrek balioak eta lehentasunak islatu behar ditu, gizarteak dituen helburuak islatu behar ditu eta elementu kulturala gaitasun horietako bakoitzaren formulazioan egongo da. Beraz, elementu kultural hori haurrek ikasi behar dutela pentsatzen dugun horretan islatzen da. Eta horiek herrialde bakoitzak hartzen dituen erabakiak dira.

Xavier: Jar dezagun gaitasunen inguruko adibide bat: norbaitek gertaera historikoak ikas ditzake, herri baten historia atzerriko bisitariei azaltzeko. Adibide horretan, gaitasuna, lan jakin bat edukitzera bideratua dago, gida izatera bideratua, alegia. Baina gaitasun bera beste era batera azal dezakegu: herriaren historia ulertzea, hori interpretatzeko eta historiari buruz dakigun horretan oinarrituta, herritar kritikoak izateko. Kasu horretan, elementu bereitsuak rol aktiboagoan ikusiko ditugu. Ikasle horrek eduki bera jasoko du, historia ikasiko du, baina herritar parte-hartzailea, kritikoa bilatu nahi dugu, gizartean integratua dagoena. Bi adibide horiek bi logikari erantzuten diete eta logika horiek herriak aukeratzen ditu. Gu neutralak gara gaitasunei ematen zaien edukiari dagokionez, baina me-

metodologia bermatzen dugu. Erabaki hori, historia gida izateko ikasiko duen edo herritar kritikoa izateko ikasiko duen, herriak edo komunitateak hartu behar du; ikasleek hezkuntza sistema horretatik ateratzean nolako profila izatea nahi duten zehaztu behar dute.

Hori da eztabaida guztiak zabaltzeko eta amaitzeko egiten dugun galdera: pentsatu al duzue irteera profil horretan? Zein da zuek 12 urteren ondoren ikastolatik ateratzea nahi duzen ikasle mota? Eta irteera profil horren arabera, bidea eraikitzen da, gaitasunen bidez eta metodologia eta tresna zehatzen bidez.

Bide horretan irakasleek garrantzi handia dute. Gaitasunen arabera ikuspegi zertan aldatzen da irakaslearen lana?

Alexia: Irakasleak hezkuntza sistemaren zutabe garrantzitsua dira. Gai-

nera, erreforma ez bada behar den moduan ulertzen, aldaketak ez badira egoki ulertzen, erresistentzia gehien egin dezakeen taldea da eta erreformaren emaitza txikiago dezake. Behetik gora, den logika batean gaude, eta metodologiak, aldaketa txikiak egitea proposatzen du, pixkanaka, aldaketa berrituz egin gabe eta irakaslearen eguneroko lana gehiegi oztopatu eta aldatu gabe. Hori da, agian, arrakastaren gaikoetako bat. Informazioz izan gabe, aldaketak erresistentzia dakar, berria den orok beldurra sortzen du. Ideia, aldaketa, egiten ari den lanaren jarraipen eta hobekuntza gisa planteatzea da; ikaskuntzari zentzu handiagoa ematen dion zer bait gaineratzea, baina orain arte egiten ari dena zalantzan jarri gabe, nola irakasten den zalantzan jarri gabe. Soilik aldaketa txikiak sartzea eta denbora tarte batzuetan programan dituen gaiak ez irakastea, baizik eta denbora

batez irakasten aritu dena artikulatzea.

Ikasle askok egiten dute hori eta irakasle onek ere egiten dute; hainbat gai harremanetan jartzen dituzte. Batez ere, Lehen Hezkuntzan, irakasle bakarra izaten delako eta ikasleei, aurreko egunean matematiketan ikusitakoa beste alor batzuetan nola erabil daitekeen galdetzen die, adibidez. Integrazio egoeren bidez, ikasleei euren lana eta hainbat gai harremanetan jartzea ahalbidetzen dieten tresnak eskaintzen dizkiegu. Beraz, berrikuntza pixkanaka doa. Praktikak erakutsi du modu horretan ikaskuntza prozesua hobe dela, herrialde askotan ebalatuat dago. Ikaskuntza horiek, denbora gehiagor irauten dute eta ikasketak zentzu handiagoa du, ikasleak zergatik ikasten duen ulertzen duelako. Ikaskuntza hori adierazgarriagoa da, zentzu handiagoa du eta denbora luzeagoz irauten du. Era berean, ikasleak emai-



xavier roegiers alexia peyser

E

// Gaitasunen gaiari dagokionez, bidezkoena zutabe nagusi batean ados jartzea da, eta ikastola guztietan komunak izango diren zenbait elementu finkatzea; kulturari dagokionez, helburuei dagokienez... Definitzeke dagoen atal bat legoke, balio zehatzagoak hartuko lituzkeena eta norberaren ezaugarrietara egokituko litzatekeena.

//

tza positiboak ikustean, motibatu egiten dira.

Beraz, prozesua irakasleen eskue-tatik pasatzen da. Informazioa eta ikas-gelan erabiltzeko tresnak helaraziz gero, ez dira gabeturik sentitzen, ez dira lekuz kanpo sentitzen.

Eta horrek guztiak zer isla du irakasle eskoletan? Balia al daitezke horrelako irakasleak sortzeko?

Alexia: Hori beste zutabeetako bat da. Baina zer gertatzen da normalean? Ikasgelan egiten diren praktika aldaketa horiek, emaitza positiboak ekartzen dituztenak, bertan egiten dira, irakasleek eurek egiten dituzte, ez dira inposatuak. Mugimendua behetik gora doa eta horrek, jakina, eragina du irakasle eskolen programetan. Izan ere, programa zehatzekin erantzun behar diote gaitasunen logikari, bertatik ateratzen diren irakasleek, jaso duten prestakuntzaren bidez, gaitasunen gainean lan egiten jakin dezaten. Dena domino efektuaren antzekoa da: norberak egiten duenak eragina du gainerako elementuetan. Irakasle ikasketak zenbait urtetakoak izaten dira, herrialdearen arabera, eta horrek, irakasle eskoleta-

ko programak egituratzeko beharra sortzen du, irakasleek gaitasunen gainean nola irakatsiko duten ikas dezaten.

Eskolei autonomia dezente ematen zaie euren programak garatzeko. Metodologia horrek ikastetxeen artean alderik ez egotea bermatuko al luke? Ala arrisku hori hor dago?

Alexia: Hori aztertzen aritu gara. Metodologia horrek atal bat har dezake ikastola guztiek jarraitzen duten zutabe nagusiaren barnean. Beraz, gaitasunen gaiari dagokionez, bidezkoena zutabe nagusi batean ados jartzea da, eta ikastola guztietan komunak izango diren zenbait elementu finkatzea; kulturari dagokionez, helburuei dagokienez... Definitzeke dagoen atal bat legoke, balio zehatzagoak hartuko lituzkeena eta norberaren ezaugarrietara egokituko litzatekeena. Beraz, nortasun komuna izango litzateke alde batetik, eta norberaren ezaugarriak jasoko lituzkeen atala, bestetik. Guatemalako kasua dator kit gogora, osagarri etniko garrantzitsuak dituztelako. Erronka bera dute nazio mailan; guda zibilaren ondoren, bake akordioak izan ziren eta etniek eta hizkuntzek leku garrantzitsua hartu zu-



ten; haiek ere integrazioaren pedagogia aplikatu dute eta curriculum komuna ezartzea lortu zuten. Horrek gaien % 70 hartzen du eta gainerakoa, % 30, ingurune linguistiko bakoitzaren arabekoa da. Haiek erabaki zuten zein gaitasun landuko diren aniztasun kulturari, linguistikoari, historikoari eta etnikoari aurre egiteko. Hori guztia adostu behar da, eta marko bat errespetatu behar da, baina ondoren, norberak berea aplikatu dezake.

Ikastoletan, duela 30 urte, gaitasunen gainean egiten zen lan edukien gainean baino gehiago. Eta izpiritu hori leku askotan mantendu da.

Alexia: Bai. Guk ikastoletan horrekin bat egiten duten puntuak aurkitu ditugu, teknikoki.

Adibidez? Zein dira puntu horiek?

Alexia: Adibidez, hizkuntza edozein izanik ere (euskara, gaztelania, frantsesa edo ingelesa), hizkuntzaren ikaskuntzak duen estatusa. Horrek hizkuntzaren ikaskuntza komunikatzeko gaitasunaren zerbitzura jartzen dela islatzen du. Hori da gaitasunen ideia, gauzak zentzua duen zerbaitegatik egitea.

Bestalde, konturatu gara, ikastola batzuetan irakasleek gai berriak ikasten ez diren uneak hartzen dituztela; bi edo hiru egunez geratzen direla eta berrikuspenak egiten dituztela; horiek integrazio moduluak dira nahiz eta izen hori ez duten edo haiek ez diren horretaz konturatu. Beraz praktika badago, gaia baino urrunago edo nota baino urrunago doan praktika, ikaskuntzak hezkuntza proiektu zabalago batean duen funtzioa bilatzera doan praktika.

Ebaluazioa aipatu duzue lehen. Gai horretara bueltatuz, zer sinesgarritasun dute zuentzat PISA neurketek?

Xavier: Gaur egun guztiok ditugu arazoak nazioarteko frogekin. Herrialde batzuetan gatazkan gaude PISAren gisako nazioarteko frogek gaitasunak

neurtzeko duten moduarekin. PISA moduko frogekin, batez ere baliabideak neurtzen dira, hau da, lehengo adibidera bueltatuta, autoaren mekanika edota autoa era koordinatuan gidatzen jakitea. Baina hori soilik ebaluatzen badugu, estandarren logika batean egongo gara, ezagutza mailaren logikan. Gure logika, ordea, baliabide huts horiek baino haratago doa, ikasleen ikaskuntza maila ebaluatu nahi dugu, baina ez soilik baliabideei dagokienez, batez ere, gaitasunei dagokienez, hau da, jakin dezaten baliabide horiek egoera zail batean erabiltzen. Madagaskarren adibidez, frogak horiek egin dira, eta jakina da, integrazioaren ikuspegi horren baitan lan egin duten ikasleek 20 punturen gainean hiruzpalau gehiago lortzen dituztela baliabideen gaineko frogak neurtzen direnean, integrazioaren pedagogia landu ez dutenen aldean. Baina ezagutzen gaineko frogak jartzen zaizkienean, teknika frogak, kalkulua frogak... integrazio egoeren bidez lan egin duten ikasle horiek, puntuazio hobeak lortzen dute baita ere, puntu bat 20en gainean. Beraz, horretan ere hobeto ikasi dute.

Horrez gain, PISA moduko frogak ikasleen artean dauden aldeak neur dituzakete soilik, baliabideak edo ezagutza neurtzen direnean. Testuinguru horretan erraza da ondorio honetara iristea: haur horiek hobeto ikasten dituzte baliabideak baina 20tik puntu bakarra soilik lortzen dute. Hori da nazioarteko frogak horien bidez zabaltzen den diskurtsoa; integrazioaren pedagogiak lagun dezake, baina oso gutxi laguntzen du. Baina guk, gaitasunen lorpena neurtzeko eskatzen dugu ez soilik motxila ezagutzaz betetzea, baizik eta haien tresnak egokitu ditzatela ebaluatu behar dena ebaluatzen. Ez soilik ikasten dena ebaluatzen, baizik eta ikasten den hori nola erabiltzen den, hau da, gaitasun maila ere ebaluatzen.

Gaitasun horiek barneratzeak, zalantzarik gabe bermatuko luke ezagutza lortzea, orduan?

Alexia: Bai, jakina. Pentsatu beste-

rik ez da egin behar guretzat eskola garaian zein ikasketa izan zen adierazgarriena eta seguru aski, arazoren bat konpontzeko minutu batez balio izan diguten gauzekin gogoratuko gara.

Xavier: Azpimarratu nahi nuke gaitasunaren araberrako ikuspegia hainbat erataratu uler daitekeela eta ulertzeko era horiek, askotariko emaitzak ematen dituztela. Adibidez, gaitasunak zeharkako gaitasun moduan soilik ulertzea, porrota izan da aurreko urteetan. Maila horretan geratzeak gauzak orokorki planteatzea zekarren ezinbestean, eta egunerokoan irakasleek ez zekiten eskolak nola antolatu hain orokorrak ziren enuntziatu horiei erantzuteko. Gainera ebaluazioa arazoa zen, planteamenduak zehatzak ez zirenez, ezin zirelako behar zen moduan, objektiboki ebaluatu. Beraz, gaitasunaren ikuspegiaren hainbat bertsio daude eta emaitzak, askotarikoak edo zehatzak dira baita ere.

Alexia: Horregatik hitz egiten dugu guk integrazioaren pedagogiaz eta hori ongi egituratutako metodologia bat da.

Xavier: Indargunerik handiena ebaluazioaren arazoari aurre egiten dion ikuspegia dela da, agian.

Integrazioaren pedagogiari buruz gehiago jakiteko, Xavier Roegiersek berak idatzitako izen bereko liburua irakur dezakezue: "Integrazioaren pedagogia. Gaitasunak eta ezagutzak txertatzea ikaskuntzan". Bertan integrazioaren pedagogiaren oinarriak azaltzen ditu egileak.

Ekintza Ikastolako gazteen motorrak martxan Teknologia proiektuekin eskuak eta burua lanean

Amaia Martinezek, Donostiako Ekintza Ikastolako DBHko ikasleak, Zientziaren azokan ikaskideekin antolatutako postuan egin digu harre-
ra. Beste hainbat ikastetxetako ikas-
leekin batera, Ekintzako Bigarren
Hezkuntzako ikasleak Miramongo
Zientziaren Kutxaguneak antolatzen
duen Experimentaldia-n izan dira,
irakasleek lagunduta.

Teknologia irakasgaiko makina bat
proiektu aurkeztu digu Amaia Martine-
zek: "Proiektuak motorrekin egin ditu-
gu, engranajeak gehitu dizkiegu abia-
dura jaisteko, eta pilen bitartez dabilta.
Zirkuituak antolatu ditugu, hainbat hel-
bururekin".

Gelako gaztetxo bakoitzak, bere
proiektua egin du. "Irakasleak zirkui-
tua eman zigun, eta gure irudimenare-



kin proiektuak asmatu ditugu", dio
Amaiak. Hala, ikasleek, irakasleak aur-
keztutako zenbait zirkuitu ikusi ostean
(bi abiadurakoak, karreran amaitzen
direnak, argiak dituztenak...), beren
proiektuaren arabera zirkuitua hau-
tatu zuten.

Amaiak hainbat proiektu aurkeztu
dizkigu; besteak beste, disko-jogailua.
"Etengailua zapalduz gero, jiraka has-
ten da, eta beste etengailua zapalduz
gero, igo egiten da", azaldu digu.

Amaiak gaztelua seinالاتu digu:
"atea igo eta jaitsi egiten da, eta, igotze-
rakoan, argia piztu eta itzali egiten da".
Autobideko hesia ere badago. Hesia
igotzean argi berdea pizten da, eta jais-
ten denean, berriz, gorria. "Beste hori

autoa da, bi abiadura ditu, aurrera eta
atzera ibiltzen da, eta argiak dauzka",
jarraitu du Amaiak. Ikasleek, kasu ho-
rretan, gurpilak erosi zituzten, baina
gainerako piezak eurek egin dituzte,
okumea erabilita.

Igogailua ere badago teknologiako
lanen artean. "Igotzerakoan argi ber-
dea pizten da, eta jaisterakoan, pisua-
ren arabera, gorria. Autobideko hesia-
ren proiektuaren antzekoa da", azaldu
digu gazteak. Lantegietako makin-
en antzekoak diren proiektuak ere era-
kusegai daude. Babak makinan sartzen
dira, ibilbidea egiten dute, eta kutxa ba-
tean amaitzen dute. Zubi altxagarria ere
ikusi dugu; igotzen eta jaisten den ba-
koitzean argi gorri eta berdeak pizten


zaizkio.

Errota bat ere bada, noranzko bikoia. "Jostailu baten modukoa da, oso sinplea", dio Amaiak. Fabrika makina konplexuago bat, eta zubi altxagari konplexuago bat ere erakutsi dizkigu, eta gora igotzen den teleferikoa ere ikusgai dago. "Mugimendu horiek pila eta motorren bitartez lortzen ditugu. Engranajeak erabiltzen ditugu motorren abiadura geldotzeko", adierazi du Amaiak.

Teknologia ikasgaia ematen den lau asteko ebaluazioan egin dituzte proiektuok. "Materiala kanpoan erosi eta lantegira eramaten dugu. Bertan antolatzen ditugu gure ideiak, eta ebaluazio osoa horretan ematen dugu", esan digu.

Hori bai, Amaiak dioenez, eskuak lanean jarri aurretik, burua jarri behar izaten dute lanean: "Proiektuaren memoria aurretik egiten dugu. Proiektuaren krokisa, engranajeak nola lotu... Proiektu horri buruzko memoria beste pertsona batek irakurtzen badu, gai izan behar du hasieratik bukaerara egitasmoa burutzeko".

Ikasleek halako proiektuak egitea gustuko dutela esan digu Amaiak: "Hasieran galduta sentitzen zara, baina gero gustukoa eta polita da".



Xiba proiektua

Euskal jolasen eta jokoan ondareari eusteko apustua

“Ez da aski euskara lantzea, euskaraz aritzeko bideak jarri behar dira” irakurtzen genuen ‘Goza nazazu gehiago...’ atalean, Hik Hasi aldizkariaren 108. alean. Ahalegin horretan dihardu Euskaraz Bizi, ikastoletako hizkuntz normalizaziorako proiektuak, sorrera-sorreratik. Bertan, eremu ez-curricularrean esku-hartzeko estrategia eta egitasmoak bideratzen dira eta, batez ere, era askotarikoak diren ekimenei koherentzia eta kohesioa ematea da arduradunen helburu nagusia. Xiba proiektua ez da aparteko proiektua; bai, ordea, euskal curriculumaren baitan, usadiozko euskal kirol eta jolasen sena iraunarazi nahi duen egitasmoa eta, guztiaren gainetik, aisialdi garaian gaztetxoek hizkuntz portaeran eragiteko egitasmoa; harreman ludikoetan euskaraz aritzeko aukera eskura jartzen duena, alegia.

Gaztetxoek eta gazteen aisialdirako ekimenak antolatuz, euskarak esparru hori ere irabaziko du, baldin eta taxuz eta sistematikoki aritzen asmatzen badugu. Egiteko horixe betetzen du Xiba proiektuak.

KRISTINA BOAN ETA HELENA BARAIBAR. IKASTOLEN ELKARTEA

Euskal joko eta jolasen transmisioa bermatzea, geure kultura bizitzea eta euskara bultzatzea dira Xiba proiektuaren helburu nagusiak, eta ongi pasatuz eta jolasen bidez lortzen dituzte helburu horiek.

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren proiektua da Xiba eta Euskal Herriko zazpi lurraldeetara zabaltzen da. Hasieran, lurraldeko federazioek “Ikaspilota” izeneko eta euskal pilotan oinarritutako ekimena jarri zuten martxan, eta geroago, esparru hori zabaldu, eta euskal jolas eta jokoak lantzea erabaki zuten. Mikel Egibarrek indar handia eman dio proiektuari, teorizazio sakona eginez, proiektuko zimen-
duak finkatu ditu. Haren lankideek azpimarratu nahi izan dute 18/98 auzia dela eta espetxean dagoen arren, han ere lanean jarraitzen duela Xiba proiektuaren inguruan, curriculumerako ekarpenak landuz, besteak beste. Izan ere, proiektua aurrera eramateko hainbat arlo lantzen dituzte; ikerketaren arloan, euskal curriculumak lantzen dute, ikasmaterialak sortzen dituzte eta kontzeptuen lanketan ere ari dira. Horrez gain, irakasleei prestakuntza eskain-



tzen diete.

Guztira, 15 lagun ari dira lanean ekimen horretan eta guk, Eñaut Telleriaren hitz egiteko aukera izan dugu. Eñautek esan digunez, Xiba proiektua eskola orduetan eta eskolaz kanpoko orduetan landu daiteke: “Aisialdiari begira, 16 urtetik gorakoentzat herri arteko Xiba jaialdiak antolatzen ditugu. Lehendabizi sei jaialdi antolatzen ditugu Nafarroa Garaian, Nafarroa Beherean, Lapurdin, Bizkaian, Araban eta Gipuzkoan. Horietan edozein herrik har dezake parte eta taldeak, sei neskek eta

sei mutilek osatzen dituzte. Hainbat joko eta jolas egiten dituzte eta puntu gehien lortzen dituztenek Euskal Herriko azken jaialdian hartzen dute parte. Iaz Idauze-Mendin, Zuberoan izan zen. Jaialdi polita izaten da, lehia egoten da, baina jai-giroa da nagusi eta egun oso festa izaten da.” Apirilean bertan hasiko dira Xiba herri arteko jaialdiak.

Euskal jolas eta jokoak eskolan

Xibak Gorputz Heziketari buruzko ikuspuntu zehatza du, bestelako eredu proposatzen dute, eta oinarri teori-

ko hori bera jaso dute euskal curriculumean egin duten ekarpenean. Euskal curriculumua da, hain zuzen ere, Xibaren zutabe nagusia. "Gorputz Heziketa korrika saio bat egin eta izerdi pixka bat botatzea baino gehiago dela aldarrikatu nahi dugu, aukera gehiago ematen dituela eta, adibidez, haurra emozionalki nola dagoen jakiteko ere balio dezakeela. Ikuspuntu hori zabaltzeko baliatzen ditugu irakasleei eskaintzen dizkiegun prestakuntza saioak eta ikasleekin egiten ditugun jaialdiak", esan digu Eñautek.

DBHrako gainera, Gorputz Heziketarako programazio osoa dute; unitate didaktikoak, saioak... "Urte osorako programazioa da eta helburu zehatzak ezartzen ditu. Hainbat gai lantzen ditugu: neguarekin lotuz elurretako jarduerak, udarekin lotuz plaza dantzak, inauterietan lotuz antzerkia eta dantza batzuk... Aurrerantzean hori guztia web orri batean argitaratzeko asmoa dugu, irakasleek materiala eskura izan dezaten", aipatu du Eñautek.

Jaialdiei dagokienez, ikasleekin Xiba jaialdiak antolatzen eta dinamizatzen dituzte. Lurralde bakoitzak bere jaialdiak ditu, Gipuzkoan adibidez, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetatik hasi eta unibertsitatearaino zabaltzen dute eskaintza, baina orokorrean, horrela antolatzen dituzte:

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailatan euskal jolas eta jokoak egiten dituzte. Ikasleak herriko plazan elkartzen dituzte eta adinari egokitutako hainbat jolas egiten dituzte: sagar biltzea, zakukarrera, sokasaltoa...

Lehen Hezkuntzako 5. mailan, lehen 'Ikaspilota' zenari eutsi eta, pilota lantzen dute. Herriko pilotalekuan elkartzen dira eta hainbat jolas egiten dituzte. Helburua, pilotarekin lotutako jolasak ezagutzeta eta pilotarekin gozatzeta da.

Lehen Hezkuntzako 6. mailan bote

luzea egiten dute. Gaur egun dauden pilota era guztien jatorria da bote luzea, taldeka jokatzen da eta hori berreskuratzeke lanean ari dira. Aurten gai horri buruzko CD-roma atera dute hainbat alderdi jasoz: historia, bilakaera, jo-



katzeko lekuak, hainbat jolas pedagogiko...

DBHn, euskal jolas eta jokoak lantzen dituzte eta DBHko 1. eta 2. mailan, sailkatu direnekin jaialdia egiten dute Senperen, Herri Urrats egunean.



Hori guztia eta gehiago...

Jaialdi horiez gain, beste hainbat jarduera ere eskaintzen ditu Xibak. Gipuzkoako Herri-kirol Federazioarekin duten hitzarmenaren ondorioz, esaterako, ikastetxeetan Gorputz Heziketako saioak ematen dituzte. Saio horiek herri-kirolen gaineko interesa eta motibazioa piztea dute helburu. Bizkaian, Bilboko udalarekin ere eskuz-esku ari dira herri kirolak lantzen eta Seaskako ikastoletan ere, Lehen Hezkuntzan pilota eta euskal joko eta jolasen inguruko saioak eskaintzen dituzte. Araban, berriz, Arabako Foru Aldundiarekin duten hitzarmenaren ondorioz pilota lantzen dute. Arraunari buruzko jarduera ere eskaintzen dute; prestakuntza teorikoa ematen dute eta ondoren, arraunean aritzen dira ikasleekin batera.

Ikastetxeentzat elurretara irteerak ere eskaintzen dituzte begirale euskaldunekin. Bidarrain lehorreko egonaldia, Zuhatzan ur jardueren inguruko egonaldia eta, Bernedon eta Lekeition, berriz, pilota udalekuak egiten dituzte. Bardeetako bizikleta irteera ere eskaintzen dute. Eta ikastetxeetan jaialdiak antolatu nahi badituzte, horretarako ere laguntza eskaintzen dute, materiala utziz, jolas eta joko horiek dinamizatuz...

Horrez gain, aisialdiko eskola kirolaren esparrurako ere, eredu berritzailea proposatzen dute. Euskal Herri osorako eredu, hezitzailea, euskalduna, osasuntsua, partehartzailea, partekidea eta euskal kulturarekin bat egiten duena. Ez baitute uste gaur egungo ereduak, helburu horiek betetzen dituenik.

Bestalde, Naziomintegia eta Foroa dituzte. Bi gune horiek, Xiba proiektua aberasteko, gai zehatzen inguruko eztabaidaguneak dira. Naziomintegia irakasle eta hezkuntza arloan ari diren laguntzaile eta langileekin burutzen dute Altsasun. Foroa, euskal jolas, joko eta kirolen inguruko hainbat eragilerekin osatzen dute.

Etiopiari laguntzeko proiektua Euskal Herria eta Etiopia ez daude hain urrun

Iruñea eta Addis Abeba zubi batek elkartzen ditu duela urtebete ingurutik, Konsue Salinas irakasleak eraikitako elkartasun zubiak, hain zuzen ere. Etiopiako eskolen egoera kaskarra ikusi, eta zerbait egin beharra zegoela pentsatu zuen Konsuek. Cielo 133 Gobernu Kanpoko Erakundearen laguntzaz, Etiopiako eskolei laguntzeko programa jarri dute abian, eta Iruñeko zenbait ikastetxetan dirua bilatzeko eta ikasleak gai horretara gerturatzeko jarduerak egiten ari dira.

Etiopian jaiotako alaba du Konsue Salinasek, eta haren bila hara joan zenean, ideia batekin itzuli zen: zerbait egin behar zuela bertako egoera hobetzen laguntzeko. Hilabete batzuk geroago, iazko martxoan, lagun bat hara zihoala eta, harekin joan zen, Cielo 133 erakundearen azpiegitura erabilita. Tenpera batzuk, margoak, pintzelak... maletan sartu, eta Addis Abebarako hegazkina hartu zuen. Eskola batera joan, eta haietzako materiala zeramala esan zien. Besoak zabalik hartu zuten Konsue hurrek eta irakasleak, eta primeran pasatu zuten material horiekin hainbat eskulan egiten: "Eskolara hurbildu nintzen, umil, eta esan nien hemen irakaslea nintzela eta margo batzuk eraman nituela, ea tailerrak egin nahi zituzten... Oso pozik hartu ninduten. Irakaslearekin ere oso ongi moldatu nintzen, eta elkarri lagundu genion. Esperientzia polita bizi izan genuen; haietzat errealitatek urruntzea izan zen, materiala ere ez baitzuten ezagu-



tzen", azaldu digu Konsuek.

Etiopiako eskolei laguntzeko proiektua abian jarri zuten handik itzulitakoan, eskolak berritzeko proiektua, zehazki. Eta, horretarako, zenbait erakusketa egiteaz gain, hainbat eskolatan ekimenak egiten ari dira. Konsue Iruñeko Arturo Kanpion ikastetxeko irakaslea da, eta bertan, azoka solidarioa egiten ari dira. Ikastetxe horretan, kultur aniztasuneko taldeak sortu da aurten, bederatzi pertsona ari dira lanean, eta Saharari eta beste herrialde batzuei laguntzen dieten moduan, Etiopiari laguntzeko programa bertan txertatu dute. Iruñeko beste zenbait ikastetxetan ere Etiopiara laguntza bidaltzeko hainbat ekimen egiten ari dira: Ermitaberri ikastetxean, adibidez. Eta García Galdano ikastetxean ere parte hartuko dute, azoka bat eginez.

Horrez gain, CANek "Zeuk aukeratu, zeuk erabaki" izeneko proiektua du, eta horren barnean sartu dituzte Kibebetsehay eta Lemlem Infantil izeneko eskolatan jantokiak egiteko proiektuak. Oraingoan, behar den diruaren herena lortu dute. "Lemlem Infantil eskola auzo txiro batean dago, eta bertan lau gela eraikitzea nahi genuke, izan ere, haur askok ez dute eskolara joaterik", esan digu Konsuek.

Hasieran, Konsuek ez zekien proiektua nola planteatu: "Nire eskola hango eskola batekin senidetzea pentsatu nuen, baina, gero, jendearen jarriera ona zela ikusita, ikasturtean behin eskolan zerbait egitea bururatu zitzaigun; alde batetik, dirua lortzeko eta, bestetik, zenbait gauza lantzeko". Izan ere, helburua, Etiopiako eskolak berritzeko dirua lortzea da, baina hori be-

zain garrantzitsua da eskolatik bertatik hori guztia sentitzea, eta eskolan laguntza hori helarazteko egiten den lana ere. Eskola komunitate guztiarekin lantzen duten proiektua da: haurrekin, familiarekin, irakasleekin... “Etxean hitz egitea, eskolan hitz egitea eta familiarekin komunikazio zuzena izatea beharrezkoa da. Ez du zentzurik dirua lortzeak, gaia ez badugu lantzen”, esan digu Konsuek.

Ikasgelako lana

Etapa guztietan landu daitekeen proiektua da. Konsue bost urteko haurren irakaslea da eta ikasgelan, Etiopiako eskolei laguntzeko kaleratu duten egutegia aitzakia hartuta, hainbat gai lantzen dituzte; hango arazoak hemen goekin alderatzen dituzte, eta haurren iritziak jasota, asko ikasten dute elkarrengandik. Aurretik dakitena bateratu

egiten dute, eta horrek taldean ikasteko aukera ematen die. “Normalean haurrei ez diegu entzuten, eta hori aldarrikatu beharko genuke. Hausnarketa egiten dute, eta hori oso garrantzitsua da. Entzungo bagenie, munduari bira emateko tresnak eskuratuko genituzke; horregatik ulertu behar da proiektua eskolatik”, esan digu Konsuek.

Eskolan, liburu azoka egiteko material bilketa egin zuten iaz. Lau urte zituzten orduan ikasleek. “Etxetik liburuak ekartzen zituzten eta egunero sailkapena egiten genuen, euro batean, bi euroan edo hiru euroan saltzeko. Magia modukoa izan zen, ipuin txokoa nahiko utzita zegoen, eta irakurzaletasun ikaragarria piztu zen. Gainera, azoka zer den ikasi zuten; haiek egindako diruarekin aritu ziren, eta batzuk saltzaileak ziren, eta besteak, erosleak. Eskolara ekarri zuten materiala baliatuta, zenbaketa, sailkapena, idazketa, zenbakiak... landu genituen. Askotan oso itxiak gara curriculumarekin, baina gauza asko egin daitezke curriculumeko alderdiak beste era batera lantzeko”,

“Nire eskola hango eskola batekin senidetzea pentsatu nuen, baina, gero, jendearen jarrera ona zela ikusita, ikasturtean behin eskolan zerbait egitea bururatu zitzaigun; alde batetik, dirua lortzeko eta, bestetik, zenbait gauza lantzeko”

azpimarratu du Konsuek.

Gainera, Etiopiako haurrek gabezia asko dituzten arren, haiek dituzten gauza batzuk hemen ez dituztela ikusten dute ikasleek; adibidez, han hormi-



goizko patiorik ez dutela, eta, kalera ateratzean, mendian bezala daudela. Hango argazkiak ikustean, ikasleek “Zeinen ongi!” esaten dute askotan, eta hori oso garrantzitsua da, Konsueren ustez. Laguntza nola iristen den ere ikusten dute haurrek: “Abenduaren 25ean Olentzero iritsi zen Kibebe Tsehay eskolara. Orduan ateratako argazkietan ikusi genuen horma bat margotuta zegoela, eta haurrak pozik jari ziren, haiek egindako ahaleginak fruituak eman dituela ikusi zutelako”, aipatu digu.

Horrelako ekimenek hezkuntzari haize berriak ekartzen dizkiotela dio Konsuek: “Ideia baldin baduzu eta egozia dela uste baduzu, aurrera; beti egongo da ideia hori gogoko duen jendea. Eta hori beharrezkoa da, bestela gure eskolak estatikoak izango dira. Gaurko Hezkuntza sisteman haize berriak sartzea kostatu egiten da”.

Prozesua azkarra izan da, baina aurrera doa, jende askori esperientzia polita iruditu zaiolako eta parte hartu duelako. Horrek guztiak, etorkizunean, jendeak nahi duen bidea hartuko duela dio Konsuek eta garrantzitsua izango litzatekeela eskola bakoitzak elkartasun proiektu bat izatea. Edozein norabide hartuta ere, bidea egiten ari dira, eta Etiopiako haurrei eskola txukunagoak izateko aukera zabaldu diete.



“Aukera duenak gaitasuna du” erakusketa

Etiopiako eskolei laguntzeko erakusketa ibiltaria egiten ari dira, “Aukera duenak gaitasuna du” izenburupean. Hainbat irakasle eta guraso proiektuan parte hartzen ari dira, eta Esther Martinez de Apodaka arduratzen da erakusketaz. Estherrek eta beste guraso batzuek toki batetik bestera eramaten dute erakusketa: Burlatara, Hondarribira, Atarrabiara... Sentsibilizazio kanpaina egiteko tresna ezin hobea da.

Cielo 133 Gobernu Kanpoko Erakundearekin elkarlanean ari dira proiektua aurrera eramaten. Informazio gehiago nahi izanez gero, www.cielo133.org helbide elektronikoan sar zaitezke. Bertan, “Proiektuak” atalean sartu, ondoren “Etiopia” jartzen duen horretan, eta, azkenik, “Eskolen elkarlan proiektuak” atalean. Web orri horretan, ikasgelan egin dituzten hainbat jardueri buruzko informazioa eta adibideak aurki ditzakezue eta baita Konsuek berak Irakasleentzako Formazio Planaren barnean aurkeztu zuen ponentzia ere.

EUROPA ISPILUAREN AURREAN

Josep Fontana



Liburu eredu garri honetan Europaren historia aztertzen du Josep Fontana historialari ospetsuak eta tradizionalki erabili den begirada eurozentrismoa kritikatu du. Europako historian ibilbide plurala izan du, bere eboluzioa ez da lineala eta bide bakarrekoa izan eta bertako herrien aniztasuna (aberastasunaren seinale dena) garatu behar du, bere egitura egoki txertatuz. Euskal Herriko begiratuta benetan interesgarria den ikuspuntua eskaintzen digu liburuak.

KRISTAUTASUNARI AZTERKETA KRITIKO BAT

Liburu honetan Jesus, Ama Birjina, Biblia, Jatorrizko bekatua, Azken Judizioa, Infernua eta horrelako kontuen berri ematen da, sakonki eta kritikoki aztertzeko. Elizaren historia aztertzen da eta baita paganoen aurkako erasoak ere. Erlijio-gerrak, Inkisizioa eta sorginak, Amerikako aborigenen kontrako triskantzak... eta jainkoaren existentziari buruzko iritziak. Irakurketa eta eztabaidarako gaiak, beraz, euskara bikainean azalduz eta hezkuntzarako bereziki landuak.



**ZURE LIBURUDENDAN
SALGAI!**

Aurkitzen ez badituzu, eskatu gure web orrian:

www.gaiak.net

galdeidazue

Haurrak gehiegi babesten al ditugu? Haur berekoiak egiten ari al gara? Ia ahaleginik egin gabe, bat-batean nahi duten guztia lortzea, egokia al da



Gero eta gehiago dira, hainbat tes-
tuinguru sozialetatik, gure gazteengan
zerbaitek ongi funtzionatzen ez duena-
ren ardura agertzen duten profesiona-
lak. Gazteei gehiegizko babesa ematen
ari al gara? Ez al dira oso berekoiak? Po-
sitiboa al da ia ahaleginik egin gabe eta
gehiegi itxaron gabe nahi duten guztia
lortzea?

Egia da gaur egungo gizartean gure
seme-alabei eta ikasleei ere eragiten
dien krisia dagoela. Askok bat egiten
dute arazorik badela eta arduratuta
egon beharko genukeela esatean. Gaz-
teen arteko indarkeria maila edota ikas-
kideen arteko krudelkeria, esaterako,
esaten ari garenaren adibide dira. Due-
la urte batzuk Hondarribiako ikasle ba-
tek jasan zuen jazarpenak suizidiora
bultzatu zuen eta gertakizun hark gaiz-
ki egiten ari garenari buruz eta egiten ari
ez garenari buruz pentsatzera bultzatu
gintuen. Dena den, ordutik gero eta
gehiago dira gazteen arteko indarkeria
kasuak eta horiek guztiek agerian uz-
ten dute enpatia, hau da, besteen le-
kuan jartzeko gaitasuna, tolerantzia,
autokontrola eta justiziaren moduko
baliok falta direla, soilik batzuk aipatze-



Amaia EZEIZA

PSIKOLOGIARI DOKTOREA ETA EHUko IRAKASLEA

Garapen sozioafektiboaren, emozioen eta gurasoen
hezuntza emozionalaren inguruko ikerlaria

arren.

Arrazoiak konplexuak diren arren,
autore batzuek behin eta berriro errep-
ikatzen dute gure gazteak hazten ari di-
renerako atmosfera morala euren gara-
penerako oso kaltegarria dela eta beste
arrazoi batzuen artean pixkanaka dese-
giten ari diren eta garrantzia handia du-
ten zenbait alderdi sozial aipatzen di-
tuzte: helduen aldetik gainbegiratzea,
gurasoen jokabide moralaren ereduak,
instrukzio etikoa (espirituala, erlijiosoa

edo zibikoa), eskola pertsonalizatua-
goak eta gurasotasuna era arduratsuan
betetzea. Gainera gure gazteek kanpo-
ko mezuen bonbardaketa jasaten dute
etengabe (telebista, zinema, publicita-
tea eta abar) eta horiek guk helarazi
nahi dizkiegun balioen kontra doaz sa-
rritan. Horrek guztiak balio positiboa-
goak direnak hondatzea dakar.

Familiaren barnean ere aldaketa
garrantzitsueak izan dira. Gaur egun
Estatu espainiarrean egindako hainbat
azterketek diote guraso eta seme-ala-
ben arteko harremana demokratizatu
egin dela, hau da, afektuari eta komuni-
kazioari garrantzi handia ematen zaie-
la, arauak adosten saiatzen direla eta
horien beharra eta erabilgarritasuna
arrazoitzen direla, seme-aleben iritziak
kontuan hartzen direla eta aitak pixka-
naka seme-alaben heziketan esku har-
tzen ari direla. Baina, beste sektore ba-
tzuetatik planteatzen ari da gaur egun-
go familia ereduaren seme-alabengana-
ko permisibitate maila gero eta altua-
goa dela eta gurasoen rolari eta familia-
ri garrantzi gutxiago ematen zaiela. Ho-
ri horrela izateko arrazoen artean,
emakumea produkzio prozesuan eta

etxez kanpoko prozesuan sartu izana, gurasoek lana egitea, heziketak dakartzan zailtasunak, seme-alabak hezterako orduan ematen diren desadostasunak, bikotekideen arteko gatazkak, okupazioa eta ikasketa mailak aipatzen dira.

Egia da gazteak bizi diren testu-guruetan aldaketa handiak gertatu direla, baina egia da baita ere, badirela oso garrantzitsuak diren kontu batzuk eta egindako ikerketen emaitzek horrekin bat egiten dute. Haurren eta gurasoen arteko harreman afektiboaren kalitateari buruz ari gara, horrek eragin handia izango baitu zenbait gaitasunen garapenean. Sentiberak diren gurasoek beren seme-alabak baldintzarik gabe onartzen dituzte, kooperatiboak dira, seme-alaben beharretara erraz hurbiltzen dira, eta zenbait konpetentzia eta balio eskuratzeko oinarri sendoa sortuko duen atxikimendu harremanaren sorrera bultzatzen dute. Diziplina motari buruzko edota sozializazio estiloari buruzko, ama etxe-koandrea izateari edo kanpoan lan egiteari buruzko, haurren balio moralen garapenaren inguruko afektuari buruzko eta familiako klimari buruzko (kooperatibotasuna/berekoikeria, enpatia, sariak atzeratzeko gaitasuna eta abar) azterketak egin direnean, emaitzek gizakiok pertsona maitatuak, babestuak eta lagunduak izateko dugun oinarriko beharra babestu dute eta baita beharra izanez gero, nora jo jakiteko premia izaten dugula azaldu ere.

Duela gutxi Estatu espainiarreko sei erregioetako guraso eta haurrekin azterketa bat egin da (Ortiz, Apodaca, Etxebarria, Fuentes eta Lopez, 2007) afektuak, lanarekiko ardurak, hazkuntzak berekin dakartzan zailtasunek, seme-alaben heziketaren inguruko akordioek, hazkuntzak bikotean sor ditzakeen gatazkek, okupazioak eta ikasketak mailak eremu moralean gurasoen esku-hartzearekin duten harremana nolakoa den aztertzeke. Emaitzen arabera, afektuak eta seme-alabak baldintzarik gabe onartzea (moralak barnertzeke eta gizartearen aldeko jarreraren

eramaile nagusia dena) Kochanska-k, Hoffman-ek eta guk (Ortiz, Apodaca, Etxebarria, Ezeiza, Fuentes eta Lopez, 1993) egindako azterketek zioten moduan, aldagarri erabakigarrienak dira seme-alabak moralki hezten dituzten gurasoen taldeetan. Gainera, adin txikikoen jokabideen diziplinazko kontrolari dagokionez, permisiboak eta toleranteenak diren gurasoak seme-alabak baldintzarik gabe hartzen dituztenak, afektua erakusten dutenak eta haurrak zoriontsuak izan daitezten eta gutxiago sufri dezaten nahi dutenak direla pentsa dezakegu, baina emaitzek ez dakarte halako ondorioz. Egia da gaur egun gurasoak lasaiagoak direla seme-alaben heziketa moralean esku hartzeari dagokionez, baina edozein kasutan, azterketak agerian utzi zuen afektuak lotura esanguratsuak azaltzen dituela esku-hartze moralekin eta baliorei dagozkien ardura eta kontrolarekin. Hau da, maitasuna eskaintzeak eta seme-alabak baldintzarik gabe onartzeak ez du kontrola alde batera uzten, kontrakoa, maitasunak bereiztu egin zituen moralki hezten duten gurasoak permisiboak direnengandik. Beste era batera esanda, seme-alaben heziketa moralean esku hartzen duten gurasoak, atxikimendua irudi egokiak erakusten dituzte, kontrola izaten dute (maitasunagatik ez dira axolagabe azaltzen), diziplina inductiboaz baliatzen dira eta haien esku-hartzeak seme-ehelen garapen moralean duen garrantziaz ziur daude.

Bertuteak lantzen

Haurrengan, inteligentzia moralak edo ongia eta gaizkiaren arteko aldeak, gizartearen aldeko jarrerak eta berekoikeria, justizia eta justiziarik eza ulertzeke gaitasunak, hainbat bertute hartzen ditu. Horien artean daude besteen sufrimendua ezagutzeko gai izatea eta norbere buruari asmo krudelekin jokatzea galeratzea, bulkadak kontrolatzea eta mementoko asebetetzea atzeratzen jakitea, epaitu aurretik besteei entzutea, ezberdintasunak onartzea eta errespetatzea, alternatiba moralak argi-

Maitasuna eskaintzeak eta seme-alabak baldintzarik gabe onartzeak ez du kontrola alde batera uzten, kontrakoa, maitasunak bereiztu egin zituen moralki hezten duten gurasoak permisiboak direnengandik. Seme-alaben heziketa moralean esku hartzen duten gurasoak, atxikimendu irudi egokiak erakusten dituzte



tzea, besteekin identifikatzeko gai izatea, injustizien kontra egitea eta gainerakoak gupidaz eta errespetuz tratatzea.

Bertute garrantzitsuenetako bat, enpatia edo gainerako sentimenduekin sintonizatzeko gaitasuna da. Beste pertsonaren ikuspuntuan jartzea dakar, nola sentitzen den ulertzea eta haren sentimenduekiko sentibera izatea. Haurrak enpatikoak izateko gaitasunarekin jaiotzen diren arren, hori behar den moduan elikatu behar da. Horretarako oinarriko baldintzetako bat gurasoak fisikoki eta emozionalki gertu egotea eta euren seme-alaben bizitzan sartuak egotea da John Gottman-ek egindako ikerketaren arabera. Horregatik da arduratzeko modukoa azken hamarkadetan gurasoek seme-alabekin pasatzen duten denbora asko murriztu dela ikustea. Zentzu horretan, azterketek gizonak seme-alaben garapen sozioafektiboan duten garrantzia azpimarratzen dute eta gero eta gehiago direla seme-alaben bizitzan ez parte



**Enpatiak haurrari bes-
teen emozioak
sentitzea
ahalbidetzen
diola genioen,
kontzientziak
ongia eta gaizkia bereiz-
ten laguntzen diola eta
azkenik, autokontrola,
moralki zuzena dena
egin dezan lortzeko bere
bulkadak geldiarazten
laguntzen diona da. Haur
batak autokontrola badu,
badaki beste alternatiba
batzuk existitzen direla,
eta bere ekintzak
kontrola ditzake**

hartzeko aukera egin duten gizonezkoak. Gurasoak seme-alabak emozionalki laguntzeko moduan ez egoteak, haurren enpatia garapenean eragina du, zalantzarik gabe.

Nola bultza dezakegu enpatia garapena gurasoek eta hezitzaileek? Emozioen kontzientzia eta hiztegia sustatzea, gainerako sentimenduekiko sentsibilitatea indartzea eta horiek enpatia erakustea oinarrikoa da.

Kontzientzia beste bertute garrantzitsu bat da. Ongia eta gaizkiaren arteko aldea bereizteaz ari gara, ontasunaren kontrako indarren aurrean babes lagunduko duten kontzientzia sendoak garatzeaz eta era egokian jokatzetik, baita tentazioaren aurrean ere. Funtsan, euren kontzientziak indartuko dituzten haurrak hezteaz. Seme-alabak heztean euren lehentasunetako bat etorkizunean gizaki on eta zuzenak izango diren haurrak lortzea dela diote guraso gehienek. Bada, horretarako

premisetako bat gure gazteek kontzientzia maila altua garatzea da. Zentzu horretan, gurasoek eredu eta instrukturen moduan duten estiloa eta gurasoen praktikak oinarrikoak dira.

Pentsamendu oldarkor bati jarraituz ez jokatzeko erabakitzeak, hirugarren osagaia dakar: autokontrola. Eta badirudi hori dela haurrek gaur egun gutxien praktikatzeko bertutea. Enpatia haurrari beskeen emozioak sentitzea ahalbidetzen diola genioen, kontzientziak ongia eta gaizkia bereizten laguntzen diola eta azkenik, autokontrola, moralki zuzena dena egin dezan lortzeko bere bulkadak geldiarazten laguntzen diona da. Haur batak autokontrola badu, badaki beste alternatiba batzuk existitzen direla, eta bere ekintzak kontrola ditzake, bat-bateko asebetetzea atzeratzeko gai da eta bere kontzientzia mailarekin bat datozen helburuak epe luzean lortzen zentratuko da. Gure seme-alabek eta ikasleek autokontrol maila altuagoak gara ditzaten nahi badugu, guk geuk autokontrol eredu ona izan behar dugu eta horrek lehentasuna izan behar du guretzat. Era berean, haiengan barneko motibazioa bultzatu behar dugu. Badirudi gaur egun haurrak txikitatik sari bat jasotzeko zain egoteko moduan hezten ditugula zintzoak izateagatik edo ongi jokatzeagatik soilik. Horrek kanpoko kontrola duen motibazioa bultzatzen du eta ongi egiten duena saria jasotzera baldintzatutzen du. Haurrek txiki-txikitatik konturatu behar dute beren buruen mende daudela eta horrek indarra eta kontrola garatzera eramango ditu. Barneko motibazioa duten haurrek ongi jokatzeko dute badakitelako zuzena zer den, eta hori berez, nahikoa sari badelako. Azkenik, inpulsiboak diren eta kontrolatzeko zailtasunak dituzten gazteei autokontrola bultzatzeko estrategiak erakutsi behar dizkiegu, bulkada horiek identifikatzen lagunduz, segundu batzuk gelditu eta zerbait egin aurretik pentsatzeko (Ongi ala gaizki al dago? Ziurra al da? Arazoak sortuko al dizkit? Hori al da egin dezakedan one-na?) eta azkenik egoki jokatzeko. Az-

ken pauso hori garrantzitsua da behin zerbait eginez gero ez delako atzera bueltarik izaten eta hartutako erabakia- ren ondorioak gure gain hartu behar izaten ditugulako. Horrek bere ekin- tzen erantzule dela konturatzen lagun- tzen dio gazteari.

Aipatutako hiru bertutez gain, zein- ak oinarriko jotzen ditugun, azpima- rragarriak diren beste batzuk ere badi- ra: errespetua, ontasuna, tolerantzia eta justizia. Norbaiten edo zerbaiten balio- ari begirunea erakustez ari gara, ingu- ruan ditugunen ongizate eta sentimen- duengatik arduratzen garela erakuste- az, giza aniztasunaren aberastasuna aintzat hartzen dugula erakustez eta ondratuak, inpartzialak eta justuak ga- rela azaltzeaz. Ezaugarri horiek gaine- rakoak begirunez tratatzera garamatza- te eta giza bizitza errespetatzera. Irakas- leek beti diote oso polita dela errespe- tuzko jarrerak dituzten haurrak, onak direnak, toleranteak eta justua direnak ikasle moduan izatea, gainerakoengan pentsatzeko gai direlako, haien egoera pertsonalekin enpatia lortzeko gai dire- lako eta babeserako jarrerak erakuste- ko gai direlako. Ezaugarri horiek pre- misa batean oinarritzen dira, hau da, pertsona guztiak duintasunez eta haien barneko balioak kontuan hartuz tratatu behar direla. Eta horrek indarkeriaren, injustiziaren eta gorrotoaren preben- tziorako oinarriko premisa bihurtzen du. Gure gazteengan bertute horiek bultzatzean, lehen pauso horietako ba- koitzaren esanahia transmititzea litza- teke eta horien garrantzia eguneroko bizitzaren adibideen bidez adieraztea, bai eskolan eta baita etxean ere.

Finean, gaur egungo ikerketek ere- mu moralean esku-hartze maila baxua dela agerian uzten dute, bai familian eta baita eskolan ere eta oso garrantzitsua dela aipatutako alderdiak lantzea uste moral sendoak izango dituzten gazteak garatzeko, ongia eta gaizkia bereizi ahal izateko, hain berekoiak ez izateko eta kooperatiboagoak izateko, bestee- kin toleranteak izateko eta kanpoko presioei jaramonik egin gabe euren erabakiei eusteko.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

apirila

berriak

Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko dinamika abiatu du EHBE-k

Maiatzaren 31ra bitartean Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldarrikapena herriz-herriz eta ikastetxe-ikastetxe zabalduko duen dinamika abiatu du Euskal Herriak Bere Eskola herri ekimenak. Ekitaldi nazionalak izango diren arren, zortzi eskualdetan gauzatuko dira ekimenak eta herrietan eta ikastetxeetan egingo diren ekitaldiek izango dute pisu gehien. Pitz izeneko arkatza herriz-herriz ibiliko da dinamika irauten duen bitartean eta ikastetxeekin eta herritarrekin elkarlanean hainbat ekimen gauzatuko dituzte: ikastetxeei eta aisialdi taldeei zuzendutako unitate didaktikoa zabalduko dute, erakusketa dinamikoak antolatuko dute, muralak egingo dituzte, hitzaldiak eta bideo emanaldiak izango dira...

Bestalde, izaera nazionala izango duten ekimenak ere izango dira eta maiatzaren 31an amaituko da dinamika Iruñean izango den manifestazioarekin batera. Ordura arte, apirilaren 4an Arrasaten bilkura egingo dute hainbat eragileekin; apirilaren 24an

Euskal Unibertsoa'08 izeneko ekimena izango da Gasteizen eta maiatzaren 10ean, Pirritx eta Porrotxen eskutik jaialdia izango da Oreretan.

Dinamikaren helburuak, Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko aldarria egitea, hezkuntza esparruko egitasmoak helburu hori antolatzeko eskubidearen logika kokatzea, inposizioak salatzea eta herritarren parte-

hartzea bultzatzea dira.

Dinamika bere herrian edo eskolan antolatu nahi duenak EHBerekin harremanetan jar daitezke posta elektronikoko honen bidez: ehbe@euskaleskola.org eta dinamikaren baitan sortzen diren baliabideak www.euskaleskola.org helbide elektronikokoan eskuragarri izango dira.



Dinamika egunez-egun

MARTXOAK 31 - MAIATZAK 31

APIRILAK 4	ARRASATE	18:00etan Eragileekin aurrebilkura eta Hezkuntza Sistema Nazionalaren aldeko argazkia 19:00etan Ekitaldia
APIRILAK 24	GASTEIZ	Euskal Unibertsoa' 08
MAIATZAK 10	ORERETA	Jaialdia Pirritx eta Porrotzekin
MAIATZAK 31	IRUÑEA	Manifestazio nazionala

Ekainean onartuko da Euskal Curriculumuma

Datozen asteetan egingo dute hausnarketa ikastetxeetan eta eragile sozialetan eta ekainaren 21ean onartuko dute Euskal Curriculumuma, Euskal Herri osorako espezifiko, oinarrizkoa eta komuna izango dena. Eztabaida prozesua hiru eragilek gidatuko dute: Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak, Sortzen-Ikasbatuaz Elkartek eta Udalbiltzak. EHIK-k eta Sortzen-Ikasbatuaz-ek ahalik eta eztabaida zabalena eman dadin bitartekoak jarriko dituzten bitartean, Udalbiltzak herri eragileen eta herritarren partehartzea bermatuko ditu.

Jasotako ekarpenekin azken txostena osatu eta onartuko dute, kultur adituen ekarpena aintzat hartuz, hezkuntzako eragileen ekarpenak aintzat

hartuz eta herritarren ekarpenak kontuan hartuz.

Hala nahi duten ikastetxeek eta eragile sozialek proposamena balioetsiko dute eta Euskal Curriculumuma praktikan jartzeko eta ebaluatzeko konpromisoa hartuko dute. Egitasmoa onartzen duten hezkuntza erakundeek era berean, ikastetxeei beharrezko dituzten baliabideak eskaintzen ahalegintzeko konpromisoa hartuko dute.

Edukiei dagokienez, oinarrizko



gaitasunak lortzeko beharrezko jotzen diren esperientziek, kontzeptuek eta prozedurek osatzen dute Euskal Curriculumum espezifiko, oinarrizko eta komuna.

Aurrematrikulatu **martxoaren 31tik** **apirilaren 11ra**



Arabako egoitza

Telef: 945 220 500

Faxa: 945 226 595

araba@kristaueskola.org

Bizkaiko egoitza

Telef: 944 234 386

Faxa: 944 243 563

bizkaia@kristaueskola.org

Gipuzkoako egoitza

Telef: 943 465 586

Faxa: 943 466 104

gipuzkoa@kristaueskola.org

edota ikastetxe bakoitzean

Hezkuntza berrizatzeko proiektuei buruzko Gipuzkoako VII. Jardunaldiak

Arartekoak etxeko irakaskuntzaren inguruko eztabaida sortzea eskatu dio Eusko Jaurlaritzari

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Gipuzkoako Berritzeguneen (Prestakuntza eta Hezkuntza Berriztatzea Laguntzeko Zerbitzuen) bitartez, Hezkuntza Berrizatzeko Proiektuei buruzko Gipuzkoako VII. Jardunaldiak antolatu ditu, "Gaitasunak garatzen" izenburupean.

Apirilaren 17an goiz eta arratsaldean izango dira jardunaldiak, eta 18an goizez soilik. Donostiako Miramar Jauregian izango dira eta esperientzia ugari ezagutzeko aukera izango da bertan. Programan, ildo nagusiak eta oinarriko kompetentzien garapena elkartzen dituzten lan gune anitzak aurkeztuko dira.

Denentzako izango diren hitzaldiak eta esperientziak izango dira eta gai zehatzen programak ere bai. Apirilak 17 goizean, Karmele Alzueta Sariak banatuko dira eta Elena Martin Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakasleak ikastentzietako kompetentziaren inguruan hitz egingo du. Atsedendikiko kafearen ostean, alde batetik zientzia eremuetako kompetentzietan zentratutako gai, ponentzia eta esperientziak izango dira eta nahiago duenarentzat Hizkuntza komunikaziorako gaitasunaren inguruan beste hainbat aurkezpen izango dira.



Arratsaldean, hautatzeko bi programa izango dira, bata gizarte eta kultura aniztasunaren inguruko aurkezpen sorta eta bestea kalitatearen ingurukoa. Eguna amaitzeko, azken orduan Elena Martin izango da, berriz ere, hizlari.

Apirilaren 18an, lehen orduan Jordi Adell Castellóngo Jaume I. Unibertsitateko irakasleak gelako jarduerak IKTen gaitasunen garapenean izan dezaketen eraginari buruz arituko da. Ostean, "Denontzako eskola" programaren barnean hainbat hitzaldi eta programa aurkeztuko dira, eta IKTeen inguruan beste hainbeste.

Izena emateko edota programa osoa ikusteko jo <http://www.gipuztik.net/jardun2008> webgunera.

Iñigo Lamarka Arartekoak beharrezko ikusten du Eusko Jaurlaritzak, "bere kompetentzien arloa gogoan izanik" irakaskuntza alternatiboerik onarpen legala ematearen inguruan gogoezta sortzea.

Eskaera, Seme-alabak eskolatik atera zituen Irungo sendiaren kasuaren harira landu du Arartekoak. Iragan udazkenean, Gipuzkoako fiskaltzak auzitara eramanez Irungo bikotea, 6-12 urte bitarteko lau haurrak etxean hezteko erabakia hartu izanagatik. Gaur egun, haurrak AEBtako Kaliforniako urrutiko ikasketak zentroan matrikulatuak daude, eta ikasketak amaitzean titulua baliozkotzea espero dute. Oraindik, familiak ez du auziaren inguruko berririk izan.

Izaskun Arratibel, Nafarroako Ikastolen Elkarteko presidente berria

Nafarroako Ikastolen Elkarteko ki-deek Izaskun Arratibel aukeratu dute presidente, Xabier Azanzak utzitako lekua betetz. Arratibel 1995etik 2001era San Fermin Ikastolako presidentea izan zen eta Zizur Txikiko Ikastolan ere lanean aritu da.

Arratibelen esanetan, "Nafarroako ikastolek kalitatezko irakaskuntzaren aldeko apustua egin dute. Ikastolen kudeaketa sistemaren gurasoen parte hartzea funtsezkoa da, eta hori ere gure ezaugarri nagusienetakoa da. Euskara eta euskal kultura ere, jakina, ezinbesteko erreferentzia dira guretzat. Nafarroako ikastolak erroturik daude lurralde honetan, 40 urteotan gurea eredu arrakastatsua dela erakutsi dugu. Hori garrantzitsua da, baina ez da aski. Oso gizarte aldakorrean bizi garenez, etorkizunerako erronka berriei aurre egin behar diegu, gurea hemendik aurrera ere hezkuntza eredu ona izan dadin. Nik, ahal dudan neurrian, horretan laguntzen saiatuko naiz".

Ikastaroak

*"Hezkuntzarik ez heziketa fisikorik gabe" jardunaldiak

Noiz: Apirilaren 11n, 9:00-17:00 **Non?** Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Eskoriatzan. **Hizlariak:** Fernando Sanchez Bañuelos, Ana Makazaga, M. Teresa Vizcarra, Antonio Fraile, Joseba Etxebeste eta abar.

*Hizkuntza teknologikak ikasleen testuak aztertzeko

Noiz: Apirilak 21-24, 16:00etatik-19:00tara. **Non?** UEU, ikastetxe nagusia. Otaola hiribidea, 1 20600, Eibar. **Emailerak:** Montse Maritxalar eta Larraitx Uria.

*Jolasa eta Hezkuntza Premia Bereziak (Garatu 07-08)


Noiz: Apirilak 7- Maiatzak 31, astelehen eta asteazkenetan, 17:30etatik-20:00tara. **Non?** UEU, ikastetxe nagusia. Otaola hiribidea, 1 20600, Eibar.

argitalpenak



Aitona eta amona udalekuetan
Idazlea
ELKAR

Aitona eta amona udalekuetara joango dira, txakur eta guzti, beren biloba Libe bisitatzera. Hara heltzeko komerriak izango dituzte eta udalekuetan dauden bitartean makina bat abentura biziko dituzte. Umorez kontatu dizkigu idazleak bisitan zehar gertatu direnak. Jokin Mitxelenak egin ditu irudiak •




Lodikroko
Amaia Hennebutte Millard
IKAS

Hamabi olerki jasotzen ditu Lodrikoko liburuak eta CD-a ere badakar. Haur Hezkuntzarako material egokia da, bereziki hizkuntza lantzeko, baina baita irudimena edota sormena lantzeko ere. Amaia Hennebutte Millard-ek idatzitako olerkiek, irrirako tartea ere uzten dute •



Biziaren sarea ehuntzen
Begoña Arrate Larrañaga
ELHUYAR

Idazlearen iritziz XXI. mendea saireen mendea izango da, eta natura saireak zientziaren bidez aztertzeak aurrerapauso nabarmenak ekarriko ditu. Ideia horren inguruko eztabaida filosofiko-zientifikoa azaltzea da liburuaren helburua eta irakurleei biziaren sarea nolakoa den imajinatzen laguntzea •




Basotxo eta animalia handiak
Arantza Ibarra Basañez
EREIN

Basotxok animalia handiak ezagutu ditu liburu berri honetan; balea, lehoia, jirafa, gamelua, krokodiloa, elefantea, hartza, arranoa, kangurua, elur-oreina eta olagarroa. Aurrekoetan bezala, oraingoan ere, forma bereziak hartuta, animaliak ezagutzera abiatu da Basotxo •



Punpalaplan
URTXINTXAESKOLA

Euskal jolasen bildumaren hirugarren alean 0-5 urte bitarteko haurrentzako 30 jolas eta kanta jaso dituzte Urtxintxa Eskolakoek. CD-a, DVD-a eta liburuxka biltzen ditu. Liburuxkan, Iñaki Eizmendik idatzitako 'Jolasa, hizkuntza jarreretan eta jokabideetan eragiteko bide eraginkorra' izeneko dokumentua jaso dute •



Europa ispiluaren aurrean
Josep Fontana
GAIK

Europarrek nortasun komuna kodifikatzeko dituzten arazoak aztertu dituzte egileak. Historikoki Europak nortasun hori "besteei" begira antolatu duela dio, haiekiko aldeak agertzeko, baina Europako benetako historia anitza dela azpimarratzen du, nahiz eta historia hori beldurrez ukatu izan dugun •

... nora joango gara?

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA Bakearen kultura zabaltzea helburu

Bakearen kultura zabaltzea da Gernikako Bakearen Museoaren helburu nagusia, Idoia Orbek, bertako Hezkuntza Zerbitzuko arduradunak, esan digunez. Bakean oinarritutako gizartea nola sor daitekeen, horixe da haien kezka nagusia, eta hori lortzeko helbuarekin, bisitariei hainbat tresna eskaintzen dizkiete. Lantzen den gaia lantzen dela, bisitariei mezu edo ideia positiboa helarazi nahi die museoak, arduradunek esan digutenez.

Museoa 1998an sortu zuen Gernika-Lumoko udalak, historia museo moduan, Gernika Museoa izenarekin. Orduan, 1937ko apirilaren 26an Alemaniako Condor Legioak eta Italiako aire indarrek, Francoren agindupean, herrian egindako bonbardaketa zen museoaren ardatza. Baina, 2002an, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa sortu zen, eta bonbardaketaren berri ematea nahikoa ez zela iritzita, orokorrean bakearen kultura zabaltzeko helburua zehaztu zuten. Beraz, 2003. urtean, Gernikako Bakearen Museoa izena hartuta zabaldu zituen berriro atak.

Erakusketa iraunkorra bisitatzen dutenek hiru atal nagusi ikusteko aukera dute: hasteko, bakea bera zer den azaltzen saiatzen dira. Bigarren atalean, Gernikako bonbardaketaren nondik norakoak ezagutzeko aukera ematen



ten dute, eta alemaniarrekin berradiskidetzea nolakoa izan zen azaltzen dute; eta amaitzeko, gaur egun munduan bakearen egoera nolakoa den aztertzen dute. Azken atala aztertzeko, bi gela dituzte; lehenean giza eskubideak aztertzen dira, bizitzarako eskubidea, askatasunez bizitzeko eskubidea eta berdintasun eskubidea; eta bigarren gelan, Euskal Herriko gatazkaren inguruko informazioa aurki daiteke. Idoia Orbek esan digunez, ideia orokorra ematen saiatzen dira gela horretan.

Hezkuntza Zerbitzua

Hezkuntza Zerbitzua 2006an jarri zuten abian Gernikako Bakearen Museoan, eta Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleekin aritzen dira batik bat.

Hainbat tailer eskaintzen dituzte, eta dinamikoak eta parte hartzeko modukoak izatea nahi dute. Jolasen bidez lantzen dituzte gaiak askotan; jolas ko-

operatiboak eginez, emotibitatea eta enpatia lantzen dituzte. Museoan gela berezia dute tailerrak egiteko.

Tailerrak egin aurretik, irakasleekin hitz egiten dute, eta gaia lantzeko edo osatzeko baliagarri izan daitekeen material eta dokumentuen zerrenda bidaltzen diete Hezkuntza Zerbitzutik. Bestalde, museoako ordutegia eta eskolako askotan bat ez datozenez, ordutegia moldatzeko arazorik ez dute izaten.

Gaur egun, garrantzi berezia ematen diote giza eskubideen tailerrari. Talde gehienek tailer hori lantzen dute, eta denbora aldetik ere egokia da, ordu eta erdi inguru irauten baitu. Giza eskubideei buruzko ideia orokorra eskaintzen saiatzen dira bertan. Tailer guztiekin egiten duten moduan, hasteko, jolasak egiten dituzte eta, ondoren, ikasleek giza eskubideen gainean duten ezagutza zenbaterainokoa den ikusten dute.

Ondoren, gaia aztertzen dute. Bost



edo sei talde egiten dituzte, eta talde ba-koitzak giza eskubide bat lantzen du; horretarako, egunkarietako artikulua erabiltzen dituzte, artelanen kopiak, egunkarietatik ateratako txisteak... Ariketak egiten dituzte hainbat gai lantzeko: aske bizitzeko eskubidea, berdintasuna, esklabotasuna, familia, iheslariak eta hezkuntza.

Eta, azken ariketa, hausnarketa izaten da, talde handian bateratzen dute talde txikietan aztertutakoa. Orduan, galdera egiten diete ikasleei: "Nolako gizartea nahiko zenukete?", eta hainbat pertsona irudikatzen dituzten koloretako paperak hartuta; haientzat gizarte perfektua litzatekeena irudikatu behar dute.

Tailer didaktikoez gain, ikasleentzat prestatutako materialak ere badi-tuzte. DBHko ikasleentzat koaderno didaktikoa dute eta, museoa ikusi ondoren, gelan bertan ikusitakoak lantzen jarraitzeko aukera ematen die horrek. Aurrerantzean, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat ere koaderno prestatzeko asmoa dute.

Bestalde, Gernikako bonbardaketa lantzeko webquesta ere badute, eta hori lantzeko ez dago museora joan beharrik; edozein ikastetxek eskura du, interneten, museoren web orrian •

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOA

Foru Plaza, 1
48300 GERNIKA-LUMO
Bizkaia
Telefona: 946 270 213
www.bakearenmuseoa.org
hezkuntza.museoa@gernika-lumo.net



Oharrak:

- Gehienez, 25 pertsonak osatutako taldeak hartzen dituzte.
- Iraupena, aukeratutako tailerraren arabera da (1 h.- 2:30 h.)
- Tailer guztiak euskaraz zein gaztelaniaz eskaintzen dituzte. Bisita gidatuak, berriz, lau hizkuntzatan eskaintzen dituzte: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.
- Taldeek arduradun batekin joan behar dute.
- Tailerrak doakoak dira.

Hezkuntza Arloa

Tailer didaktikoak

- Bakea (15 urtetik gorakoentzat)
- Historia eta bitartekaritza (DBH eta Batxilergoa)
- Giza eskubideak (DBH eta Batxilergoa)
- Irakatsi gabeko irakasgaia (DBH)
- Hiroshima-Nagasaki (LH)
- Bake Hatzak (LH)

Material pedagogikoak

- Gernikako bonbardaketari buruzko webquesta
- Koaderno didaktikoa (Bigarren Hezkuntza)

Dokumentazio zentroa

- Gerra Zibilari eta Gernikako bonbardaketari buruzko dokumentazio zentroa ere badu museoa.



atzeko atetik



Sustrai COLINA

BERTSOLARIA

- Idatzi bi hitz. Bi hitz, nongoa zaren esateko beste.

Neskek mutilek baino letra txukunagoa dutela dio amonak. Nesken idazkera mailara heltzen den mutila ez dela parte onekoa aitonak. Ongi idazten duten mutilak ez omen dira fidatze-koak. Eta gaizki idazten duten neskak ere... Nire aiton-amonek asko dakite.

- Aitona, amona, ni. Hiru hitz, nongoa zaren esateko beste.

Omar argentinarra omen da. Nadia Errumaniarra. Ez nintzateke harrituko Oihana Bolikostako basoan sortua baltz. Amaiaren ama Txinatik etorri zela diote. Baina ez al gara jaiotzen garen herrikoak? Ezin al gara sustraitzen garen lurtekoak izan? Ama, zer da autode-terminazioa?

Sei hitz

- Argentina, Errumania, Bolikosta, Txina. Lau hitz, nongoa zaren esateko beste.

Irakasleak dio Kepa ilargian bizi dela, Mainer-en planeta bakarra futboleko baloia dela, Xabi prentsa-arrosako izarrek itsutzen dutela, eta beste guztiak satelite batzuk baizik ez garela. Tira, azken hori ez du esaten baina... Bera meteorito hutsa da.

- Ilargia, planeta, izarra, satelitea, meteoritoa. Bost hitz, nongoa zaren esateko beste.

Lanbide bakoitzak bere idazkera omen du. Medikuek aeta oherdin idazten dituzte, horregatik da zaila farmazian lan egitea. Detektibeak oso txukunak dira, euren idazkera kodifikatua darabilten arren. Notarioak, aldiz, letra kaxkarrekoa baina zenbaki onekoa behar du, eta kirolaria, ez letra, ez zenbaki, firma errazekoa izanda nahikoa. Ez dakit nola idazten duten apaizek.

- Medikua, farmazista, detektibea, notarioa, kirolaria, apaiza. Sei hitz, nongoa zaren esateko beste.

Atzo hasi ginen idazten ikasten. Herenegun erosi zizkidan amak idazluma eta kuadro handidun orrialdeak. Sei hitz idazten dakizkit jada, eta nahikoa omen da Hendaia-ko ikastolako naizela garbi uzteko. Mundukoa izan nahi dudala esan diot amari, eta orri txuritu txuri bat jarri dit sudur puntan.

- Sei hitz, nongoa zaren esateko beste.

Idatzi dizkiot lehenengo sei hitzak. Eskerrak ez ziren zazpi. Nire lehen le-rroa aldapa gora atera zait eta ez zatekeen zazpigarrenik kabituko. Bigarren aukera eskatu eta aldapa behera abiatu naiz. Kaka. Horregatik nago Hendaia-ko ikastolako izatera kondenatua. Irungoek zuzen-zuzen idazten ikasten omen dute, guk ez. Lasai egoteko, igotzen den oro jeisten dela esan dit aitak barrez. Askotan egiten du irri nik zergatik jakin gabe.

- Aita, tori orria. Sei hitz, nongoa zaren jakiteko beste.

Orria inprimagailuan sartu, sei hitz idatzi, eta bera ez Irungoa ez Hendaia-koa, PC-koa dela erantzun dit.



Munduan, egunean 27.000 haur baino gehiago hiltzen dira sahiestu daitezkeen gaitzengatik. 2006an munduan hildako haurren % 80 Afrikan hil ziren. Sierra Leonan jaiotzen diren 1000 haurretatik, 270 ez dira bost urte betetzera iristen.

Iturria: Unicef

ikastolak

etorkizuna ereiten



Ikastolen Elkartea

www.ikastola.net

Euskal Eskola Publikoa

Urtez urte
hazten dira.
**Baita euren
eskola ere.**

Etorkizunerako prestakuntza

Ezagutza teknologikoak

Eleoniztasuna

Balore integratzaileak

**Aurrematrikulak:
Martxoaren 31tik
apirilaren 11ra**

Euskal Eskola Publikoa:
Hobera egin du baliabideetan,
berrikuntzan eta kalitatean



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN